





SKOLAE Programa,  
BERDINTASUNEAN BIZITZEN IKASTEKO IBILBIDE BAT



## Aurkezpena

Hezkuntza Departamentuan bi helburu argi genituela hasi ginen SKOLAE Programa diseinatzen.

Alde batetik, hezkuntza-sisteman berdintasuna txertatzera behartzen gaituen araudia betetzea.

Bestetik, erreferentzia antolatu eta sistematikoa ezartzea hezkuntza-etapa guztietan zehar gauzatu ahal izateko, irakasleen eta hezkuntza-zentroen eskutik, hezkuntza-komunitatearen gainerako kideen, familien eta toki-ingurune hurbilenaren laguntzarekin.

SKOLAEren edukiak hauen inguruko azterketa oinarri hartuta prestatu dira: berdintasun-ezak, egun gure gizartean dagoen indarkeria eta neskatu-mutikoei txiki-txikitatik eta ohartu gabe transmititzen dizkiegun desberdintasun-ereduak.

SKOLAEk neskato-mutikoentzako ereduak eta mezuak –askotan mezu sexistak– orekatu nahi ditu hezkuntzaren bidez. Helburu honekin diseinatu du bere esku-hartzea: berdintasunean hazi eta berdintasunezko harremanak izatea, indarkeriarik gabe eta bizi-aukera guztiak eskura izanda, beren nahi eta gaitasunetatik abiatuz modu librean eta arduratsuan aukera dezaten, neskatoak edo mutikoak diren aintzat hartu gabe.

**SKOLAEren proposamenak berdintasunera ez daramaten jarrera eta jokabideak aztertu, zuzendu eta konpentsatu nahi ditu, hezkuntza-etapa guztietan zehar, baita berdintasuna lortzen lagunduko diguten jarrera eta jokabideak erakutsi eta identifikatu ere.**

- ✓ Nafarroako ikasle guztiei bermatu beharreko eskubidea delako berdintasuna.
- ✓ Indarkeria gure gizartetik ezabatzeko bide bakarra delako berdintasuna.
- ✓ Gure seme-alabak beren harremanetan eta bizitzan zoriontsuago eginen dituelako berdintasunak.

Pilar Mayo Falque

Hezkuntza Departamentuko Berdintasuna eta Bizikidetzaren Atal Burua

Argitalpen hau Skolae Programaren gaineko familiendako argibide laburpena da. Familientzat eta oro har herritarrentzat pentsaturik dago. Prestakuntza ikastaroak izanen ditu osagarri, ikastaro horiek berdintasunean oinarritutako balio-hezkuntza baterantz aurrera egin nahi dutenen eskura jarriz.

Gehiago jakiteko:

[www.skolae.educacion.navarra.es](http://www.skolae.educacion.navarra.es)

Argitaratzailea: Nafarroako Gobernua



Iruña 2019

Inprimaketa: Ziur Navarra

L.G. NA 1540-2019

## Aurkibidea

1. Familia, eskola eta berdintasunerako hezkuntza .....	7
2. Berdintasunerako hezkuntza eta hura nola islatu den legeetan .....	11
3. Hezkidetza Plana 2017-2021 eta SKOLAE Programa .....	15
SKOLAEren <b>helburu nagusia</b> .....	19
Zer hezkuntza- <b>mailatarako</b> sortu den .....	19
SKOLAEk zein hezkuntza- <b>arlotan</b> hartzen duen esku.....	20
4. Berdintasunean bizitzeko lau ikaskuntza handi .....	21
<b>1. Areatza:</b> Kritika eta ardura berdintasun-eza dela-eta .....	23
<b>2. Areatza:</b> Autonomia eta independentzia pertsonala .....	28
<b>3. Areatza:</b> Lidergoa, ahalduntzea eta partaidetza soziala .....	35
<b>4. Areatza:</b> Sexualitatea eta tratu ona .....	43



SKOLAE



# I FAMILIA, ESKOLA ETA BERDINTASUNERAKO HEZKUNTZA

Familiak eta eskolak helburu komunak dituzte hurrengo belaunaldien hezkuntzarako. Familia nahiz eskola lanean ari dira gaurko haurrak etorkizunean gizon-emakume bihurtzen direnean balio demokratikoak, aniztasunarekiko errespetua eta herritartasun kritikoa izan ditzaten, duintasunez, arduraz eta askatasunez bizi ahal izateko.

Familia bakar batek ere ez du bere alaba diskriminatu nahi gizonezkoen aldean; familia bakar batek ere ez du bere semea hazi nahi zoriontasun-eza, beharrezkoa ez den arriskua edo indarkeria ekarriko dion maskulinitate batean. Horregatik, **familiak eta eskolak elkartu egin behar dute, berdintasunean eta berdintasunerako hezteko.**

Berdintasunerako hezteak ez da lan erraza; gizarteak ez digu laguntzen, ez eskolari ez hezkuntza-sistemari. Oraindik ere, badira gauzak aldatzeko erresistentziak, bai berdintasunarekin lotutako kontzeptuak ez direlako ongi ulertzen eta mezu okerrekin lotzen direlako, bai uste delako berdintasuna lortu egin

dela dagoeneko. Egia esan, aurrerapen handiak egin dira azken hogeitun urteotan; hala ere, berdintasun-ezak bizitzaren arlo guztietan dirau: lan-munduan sartzean, erantzukizun-lanpostuak eskuratzean, etxeko lanen eta familia-arduren banaketan, eta abarrear. Eta gure ardura da batera lan egitea hori ezabatzeko eta berdintasun-ezak sortzen dituen neskato eta emakumeen kontrako indarkeria guztiak errotik kentzeko.

**Ez da erraza berdintasunean hezteak aldi berean egun guztian zehar horrenbeste mezu sexista jasota publizitatean, telesailetan, filmetan, bideojokoetan, kantetan, gizarte-sareetan...**



Hedabideek balio sexistak transmititzen dituzte modu nabarmenean. Kontua ez da horiek debekatzea, ezinezkoa baita gurea bezalako gizarte batean, baizik eta pentsamendu kritikoa heztean, gure seme-alabak edozein adinetan eduki horretaz ohartu daitezen eta aukeratu ahal izan dezaten.

Mezu horiek neskato eta mutikoen interesak eta nahiak erakutsi eta banatzen dituzte, eta irmoki transmititzen dute zer den emakumezkoentzat eta zer gizonezkoentzat.

Eguberrietan gure etxeetara ailegatzen diren jostailuen katalogoak bakarrik aztertuz gero, ikusiko dugu XXI. mendean oraindik ere erabat bereizita agertzen direla mutikoentzako eta neskatoentzako jostailutzat jotzen direnak. Iragartzeko erabiltzen diren koloreak ere desberdinak dira: urdinak, gorriak eta grisak, mutilentzat; arrosak eta pastel-tonuak, neskentzat. Hala, adibide berarekin jarraituz, neskatoak beste pertsonak zaintzeko ekintzetan ageri dira, adibidez panpinekin, eta zaintzarako prestakuntza argiak dira horiek. Neskatoen irudiak, salbuespenak salbuespen, barruan eta etxearen ingurunean egiten diren ekintzekin edo jolasekin lotuta daude, hala nola plantxan aritzea, sukaldaritza, gozogintza... Bestela, edertasun kosmetikoarekin dute lotura: mozorroak, makillaje-kutxak, etab...

Mutikoen kokalekuari erreparatzen badiogu, ohartuko gara kanpo-jolasetan ageri direla, eraikuntzarako jostailuekin, motorraren munduari lotutakoekin, su-armekin eta, askotan, indarkeriarekin zuzenean lotura duten telesailen eta pertsonaien mozorroekin.

Aztertzen erraza den adibide hori gure haurrengana iristen diren kultura-adierazpen ia guztietan errepikatzen da: kantuak, irudiak, filmak, moda, etab. ***Haurrek ikusten duten horretatik ikasten dute, entzuten duten horretatik, beren lagunek aintzat hartzen duten horretatik...***


**Egia da gizartearen zati bat sexismo horren aurka atera dela, eta dagoeneko badirela beren mezuak aldatzen ari diren enpresak eta kultura-ekoizpenak; berdintasuna defendatzen duen eta planeta hobe batean gizarte hobe sortu nahi duen mundu batera egokitzen dituzte beren mezuak. Hala ere, ekintza minoritarioak dira eta ezin dira borrokatu eduki sexista handiko mezuak sustatu eta lantzen dituen gizarte baten kontra.**

Oso zaila da arrosarekiko, printzesekiko edo indarkeriazko bideojokoekiko sortu den erakarpena aldatzea. Horregatik, haurrek, nahiz eta beren familietan berdintasun-heziketa bat jaso, sexismo-bonbardaketa izugarria jasaten dute jaiotzen direnetik eta beren bizitza guztian zehar. Horren bidez eraikitzen dira gizonezkoa edo emakumezkoa zer den adierazten duten ideiak, zer dagokion bakoitzari eta zer xede izaten ahal dituen bakoitzak.

**Haur bakoitzak oso-oso gaztetatik ikasi eta eraikitzen ditu bere izateko eta jokatzeko modua, bere jolasak eta bere bizi-itxaropenak. Eta hezkuntza eta mezuak sexistak badira, estereotipoek mugatuko dute haren garapena, eta ez diote lagunduko berdintasunean hazten eta bere bizi-proiektua berdintasunean eraikitzen.**

Hala, **eskolak eta familiak elkartu egin behar dute estereotiporik gabeko hezkuntza libre batean**, non aukera- eta eskubide-berdintasuna lehenetsiko den neskatoentzat nahiz mutikoentzat. Hauxe da helburua: gure hurrek eta gazteek estrategiak eta pentsamendu kritikoa eskuratzea sexismoa dela-eta, genero-oztoporik gabe bizitzeko, eta modu librean jolastu, bizi eta garatzeko, neskek edo mutilak diren aintzat hartu gabe.

**Gure belaunaldiak ez dira berdintasunean hezi, eta beti ez gara gai izaten hura transmititu eta irakasteko, baina horrek ez luke muga bat izan behar berdintasunean hezteko. Gure seme-alabak berdintasunean hezteko, batera ahalegindu behar dugu, egungo eta etorkizuneko belaunaldiek horixe merezi baitute.**



SKOLAE

# 2. BERDINTASUNERAKO HEZKUNTZA ETA HURA NOLA ISLATU DEN LEGEETAN

Nazioarteko zenbait araudik eta estatuko nahiz Foru Komunitateko lege eta araudi askok biltzen dute berdintasunean hezteko beharra eta hezkuntza-administrazioak hala egiteko duen betebeharra<sup>1</sup>.

→ **Lege horiek hezkuntza-sistema behartzen dute zenbait programa martxan jartzera, sexismoaren kontra borrokatzeko, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, gure inguruko gizartean hedabideetan (publizitatea, telesailak...) dagoen sexismoa ulertu eta aztertzeko, eta ikasleei estrategiak eta gaitasunak eskuratzen lagun egiteko, berdintasunezko bizi-proiektu bat lor dezaten.**

1. Hezkuntza Departamentuaren [www.skolae.educacion.navarra.es](http://www.skolae.educacion.navarra.es) webgunean, SKOLAE Programa inspiratu eta babesten duten legeak kontsultatzen ahal dira, baita artikulu-sorta bat ere hezkuntza-administrazioak eskolan berdintasunean ikastea bermatzeko duen erantzukizunari buruz.

Nazioarteko komunitateak beren estatuetakoz hezkuntza-sistemei eskatu eta ardura egotzen die berdintasunaren alde lan egin dezaten, nazioarteko erakundeek (OME, UNESCO, NB, UNICEF, etab.) adierazpen ugarietan biltzen den bezala, non ezartzen baitira mundu berdinzaleagoa, bidezkoagoa eta zuzenagoa lortzeko helbururako irizpideak.

Hala, komeni da honako hau oroitaraztea:

1979ko abenduaren 18an, **Nazio Batuen Batzar Orokorrak Emakumeen Aurkako Diskriminazio guztiak ezabatzeko Hitzarmena** onetsi zuen, eta 1981eko irailaren 3an sartu zen indarrean, 20 herrialdek berretsi eta gero. 1989an, Hitzarmenaren 10. urteurrenean, ia 100 nazio adierazi zuten haren xedapenak **beteko zituztela**. 10. artikulua zera dio: *“Estatu Kideek neurri egoki guztiak hartuko dituzte emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko, hezkuntzaren esparruan gizonaren eskubide berberak segurtatzeko xedez eta, zehazki, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun baldintzetan”, eta zenbait ataletan zehaztu du; hala nola: c) Gizonaren eta emakumearen eginkizunei buruzko kontzeptu estereotipatu guztiak ezabatzea, irakaskuntzako maila eta era guztietan, hezkuntza nahasia eta helburu hau lortzeko lagungarri izan daitezkeen bestelako hezkuntza motak bultzatuz eta, zehazki, eskola liburuak eta programak aldatuz eta irakaskuntza metodoak egokituz”.*

**Honako hau da SKOLAE programaren helburuetako bat: hezkuntzako genero-estereotipoak aztertzea eta ezabatzea, sexu bakoitzari lotutako itxaropenetatik eta mugetatik aske dagoen mundu bat sortzeko.**

Berdintasuna ezin da eraiki gizona eta emakumea izatea zer den adierazten duten ideia estereotipatuak eusten badiegu: zein portaera diren emakumezkoenak eta zein gizonzkoenak, zer jarrera, lanbide eta jardura, etab. Horiek poliki-poliki ezabatuz, zaintzen ardura partekatuan hezi ahal izanen ditugu gure seme-alabak, baita bizitzan nahi dutena izateko askatasunean ere.

Estereotipoa etiketa-mota bat da, eta, horren bidez, haurrei ematen diegun heziketa eta tratua modulatu da horiek jaio baino lehenagotik ere. Neskatoei etiketa batzuk esleitzen zaizkie, eta mutikoei, beste batzuk. Etiketa horiek, azkenean, pertsonen askatasuna murrizten dute, sailkatu egiten dituztelako, kasu honetan neska edo mutila izateagatik bakarrik. Estereotipoek ez dute giza izaerarekin zerikusirik, baizik eta kulturalak dira, historian zehar sortuz eta garatuz joan baitira.

Ez da gauza bera Nafarroan gaur egun emakumea izatea eta 1900. urtean emakumea izatea, edo ez da gauza bera gaur egun Nafarroan emakumea izatea, eta Afganistanen edo Marokon. Neskatoengandik eta mutikoengandik espero duguna jaio eta bizi diren ingurunearen arabera da. Beraz, emakumeei eta gizonei esleitzen dizkiegun jokaerak, jarrerak, lanbideak eta ardurak erabat kulturalak dira eta, batez ere, ez dira eredu bidezkoen arabera banatu. Eta kulturala dena aldatu egiten ahal da. Ez da erraza, baina ez da ezinezkoa.

**SKOLAEk honako honetan oinarritzen den irakaskuntza-proposamena planteatzen du: gure gizartea aldatzeko eta hobetzeko gaitasuna, gure seme-alabentzat gizarte libreagoa, berdinzaleagoa, eta, horrenbestez, bidezkoagoa eraiki dezagun. Hezkuntza-proposamen bat gure seme-alabei beren bizi-proiektuari buruz berdintasunean erabakitzeko aukera ematen dien mundu bat sortzeko.**

Ildo berean, honela dio UNESCOk 2003an egindako txostenean: *“Erabateko berdintasunak honako hauek dakartza: neskatoei eta mutikoei eskolara joateko aukera berak ematea, eskolan estereotiporik gabeko metodo eta irakaskuntza-planen bidez heztea, eta eskola-orientazioa eta -aholkularitza jasotzea lerratze sexistarik gabe”.*

SKOLAEk aukera ematen du hezkuntza-sistemaren etapa guztietan hausnartzeko, eztabaidatzeko, lan egiteko eta ikasteko, adin bakoitzera egokituta, gizonen eta emakumeen arteko erabateko berdintasunera bideratutako hezkuntza bermatuz.



Berdintasunarekin ados bagaude, ezin gara deus ere egin gabe gelditu, ezta ikasgela eta etxeetan berdintasuna lantzearen eta gizartean haren isla izatearen kontra egon (kiroletan, hedabideetan, telesailetan...).

Gizarte gisa, gure seme-alabentzako berdintasuna bilatzen duten estrategia, programa eta planak sustatu behar ditugu. Eskolak eta familiek jarrera aktiboa eta positiboa hartu behar dugu, berdintasun-ezari buruzko hausnarketa sustatuz eta elkarrekin lan eginez etxeko eta ikasgelako berdintasunaren alde.

Estatuan eta Foru Komunitatean, aholku eta betekizunak biltzen dituzten arau, plan eta bestelako elementu estrategiko ugari behartzen dituzte Hezkuntza Departamentua, ikastetxeak eta, oro har, hezkuntza-komunitatea modu aktiboan lan egitera hezkidetzan oinarritutako eskola-eredu bat lortzeko.

Hezkidetza lantzen duen eskolak estereotipo sexistarik gabe bizitzen laguntzen die haurrei, askatasunean eta erantzukizunean heziz, beren proiektuak berdintasunean gara ditzaten; berdintasun-ezei aurre egiten eta horien kontra borrokatzen ikasten ere laguntzen die, besteak beste, beren kulturaren, gizarte-klasearen, erlijioaren, sexu-orientazio eta -identitatearen eta egoera funtzionalaren arabera.

**SKOLAEk hezkidetza-eskolaren eredua lantzen du; balio askoren inguruan egituratuta dago, baita oinarrizko eskubide batean inguruan ere: berdintasunerako eskubidea.**

SKOLAEk eskolako egunerokoan zehazten ditu legeek hezkuntza-sistemari estereotipo sexistarik gabeko hezkuntzarako eskubideei dagokienez eskatzen dizkioten edukiak; sistema horrek aniztasuna errespetatuko du eta emakumeen eta neskatuen aurkako indarkeriarik gabea izanen da.



# 3 HEZKIDETZA PLANA 2017-2021 ETA SKOLAE PROGRAMA

Berdintasunari buruzko datuen eta indarkeriarekin edo tratu txarrekin lotutako egoeren berri izan, edo horiek aztertzen baditugu, oro har, hezkuntza-sistemari begiratzen diogu.

Eta honelakoak esan edo entzuten ditugu: *“Hezkuntzatik hasi beharra dago!”*, *“Lehenago hasi beharra zegoen!”*.

*Lehenago, baina noiz? Eta zer egin behar genuen?*

**Jakin badakigu hezteko lana haurrak jaiotzen diren unetik bertatik abiatzen dela.** Nola hitz egiten diegun, nola jantzen ditugun, zer ipuin kontatzen dizkiegun edo zer kanta abestu... Gauza guztiek osatzen dute munduari buruz ikasten dutena: ematen dizkiegun ereduak, egiten dizkiegun galderak eta nola laguntzen diegun horiei erantzuten, nola ulertzen duten bitzita eta ingurunea.

Berdintasuna eta berdintasun-eza bizitzaren lehen urteetan hasten dira barneratzen.

Eta orduan...

**zer ikasi beharko litzateke berdintasunean bizitzen ikasteko eta gure bizitzetatik berdintasun-eza ezabatzeko? Hezkidetza Planak horri erantzuten dio, eta, horretarako, partekatutako hausnarketa eta lanetik abiatzen da berdintasunaren, pedagogiaren, psikologiaren eta hezkuntzaren arloko profesionalen arteko elkarlana baliatuz, honako galdera hau abiapuntu hartuta: zer gaitasunek biltzen dute berdintasunean bizitzen jakiteko gaitasun orokorra?**

→ **HEZKIDETZA PLANAK**

erreferentzia-**esparru teorikoa** garatzen du ikastetxe bakoitzean hezkidetzarako esku-hartzea eta konpromisoa ulertu, identifikatu eta orientatu ahal izateko.

→ **IBILBIDE**Aren bidez, haurrek gaitasunak progresiboki eskuratu ahal izanen dituzte, berdintasunean bizitzeko gaitasun orokorra berenganatu ahal izateko; eta hauxe esan nahi du gaitasun orokor horrek:

*“Norberaren bizitza-proiektua aukeratzea, ezagutzatik, askatasunetik eta aukera-aniztasunetik, genero-baldintzatzailerik gabe, berdintasun-eza identifikatzen, haren aurka borrokatzen eta berdintasun-eskubidea gauzatzen (kultura, erlijio, gizarte-klase, orientazio sexual, egoera funtzional bakoitzaren esparruan) ikasita”.*

**Hezkidetzaz-ibilbideari** esker, esku-hartze hori zehaztu egiten ahal da edukien eta talde- eta banako-esperientzien progresio adostu bat ezarriz hezkuntza-prozesu guztian zehar, berdintasunean bizitzen ikasteko.

Ibilbideak **progresiboki** landuko ditu helburuak eta edukiak, eskola-sistemaren unibertsitateaz kanpoko etapa guztietan zehar, hasiera-hasieratik.

● Ibilbidea **lau ikaskuntza** nagusiren inguruan egituratzen da; ikasleek **4 gaitasun** gara ditzaten diseinatuta daude horiek eta, halaber, berdintasunean bizitzeko **gaitasun orokorra** biltzen dute.



IKASKETAK	GAITASUNAK
<p><b>KRIKA ETA ARDURA BERDINTASUN-EZA DELA-ETA</b></p>	<p>Generoaren arloan dagoen berdintasun-eza identifikatu eta aztertzea, hari aurre egiteko eta hura eraldatzeko ardura nork bere gain har dizan.</p>
<p><b>AUTONOMIA ETA INDEPENDENTZIA PERTSONALA</b></p>	<p>Zainketa- eta enplegu-lanak autonomia eta independentziarako oinarri gisa hartzea berdintasunezko bizitza-proiektuetan.</p>
<p><b>LIDERGOA, AHALDUNTZEA ETA PARTAIDETZA SOZIALA</b></p>	<p>Erabakiak hartzeko norberak duen gaitasuna aitortzea eta jokabide partekatua sustatzea, denon helburuak lortze aldera.</p>
<p><b>SEXUALITATEA ETA TRATU ONA</b></p>	<p>Errespetua eta berdintasunezko hazkunde pertsonala sustatzen dituzten harreman afektibo, sexual eta bizikidetzakoak adierazteko eta ezartzeko gaitasun pertsonala ezagutzea eta onartzea.</p>

## SKOLAE Programa

hezkuntza-sistemak ematen duen erantzun egituratua da, ikasleek berdintasuna barneratu dezaten eta ibilbide hori praktikan aplikatu dadin.

Genero-baldintzatzaile gabe hazteak, azken batean, hau esan nahi du: bakoitzak izan nahi duen bezala haztea, neskato izan nahiz mutiko izan; eta honako hauek ikastea: indartsu izaten eta goxo jokatzeko, besteak zaintzen eta besteak zaindu gaitzaten uzten, beldurra erakusten, autonomiaz hazten, hanka-sartzen, gure ideiak adierazten eta besteak aditzen, espazioak, jokoak eta kirolak partekatzen, sexualitatea errespetuz eta indarkeriarik gabe ulertu eta bizitzen, aniztasuna errespetatzen eta gizartearen denok batera berdintasunean eraikitzen.

Programaren alderdi azpimarragarriena irakasleei eskaintzen dizkien orientabide didaktiko ugariak dira; adinaren arabera antolatuta daude eta ikasgelako programazioak egiteko abiapuntu dira.

**SKOLAE ikaskuntza-proposamen praktikoa da, ikasmailatan antolatuta eta eskola-ibilbide guztirako; adinaren arabera egokituta dago eta irakasleen eskutik eramaten da ikasgeletara.**

Irakasle bakoitzak jakiten du zein den ikasle bakoitzaren garapen-maila eta gaitasuna; hala, ikasgelaren egoerara egokitzen ahal ditu edukiak, egoki ulertu eta barneratzen direla bermatzeko.

## SKOLAE honela garatzen da:

- ▶ 0-3 etapatik Batxilergoraino eta Lanbide Heziketaraino doan ikaskuntza-ibilbidea.
- ▶ Badu irakasleentzako prestakuntza-plan progresiboa.
- ▶ Orientabide didaktikoak, adin guztietako ikasgeletan aplikatu ahal izateko.
- ▶ Parte hartzen duten irakasleentzako banakako aholkularitza eta laguntza.
- ▶ Familientzako prestakuntza eta laguntza.
- ▶ Toki-ingurunearekin koordinatzea.
- ▶ Hezkuntza-etapa guztietako 16 ikastetxetan hasierako probaldia (2017-2018): 0-3 urte etapa, haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, DBH, oinarrizko Lanbide Heziketa, Batxilergoa, Erdi-mailako eta Goi-mailako Heziketa Zikloak.
- ▶ Orokortze-fase progresibo bat egonen da, eta urtero izendatuko dira programan sartuko diren ikastetxeak; bi ikasturte izanen dituzte ikastetxe osoan ezartzeko.

## SKOLAE konpromisoak:

### Ikastetxeen konpromisoa

- \* Ikasgeletan jarduerak aplikatuko dituen irakasle bakoitzak **Prestakuntza eta aholkularitza Planean** parte hartzea modu erdipresentzian ikasturte batez. Ikastetxeak bi urte ditu epe horretan programa aplikatzea bermatzen duen beharrezko pertsonala prestatzeko
- \* **Klaustroko** irakasleen zati nabarmen batek parte hartzea prestakuntza-prozesuan eta programaren ebaluazioan.
- \* Ikasgeletan **hezkidetzaren orientabide didaktikoak** aplikatzea.
- \* Ikastetxeko **zuzendaritza-taldeak** konpromiso aktiboa espresuki agintzea.
- \* Hezkidetzarekiko konpromisoa ikastetxearen dokumentazioan sartzea (UPO, IHP, Tutore-planetan, etab.).
- \* Urtero hezkuntza-ikuskaritzari ikastetxeko memoria ematea, baita konpromisoak aplikatzeari buruz ezarritako jarraipen-tresnak ere, urte bakoitzean dagokion araudian ezarrita dauden bezala.
- \* **Hezkidetzako-koordinatzaile bat eta talde sustatzaile bat** izendatzea, ikastetxe bakoitzean.
- \* Hezkidetzarekiko duen konpromisoa modu agerian adieraztea ikastetxearen webgunean eta haren bestelako hedabideetan.
- \* **Eskola-kontseiluari** jarraipenaren berri ematea.
- \* **Familiak** prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzetan **inplikatzea**, eta horietan parte hartzea.
- \* **Toki-ingurunearekin** koordinatzea.

### Hezkuntza Departamentuaren konpromisoa:

- \* Honako hauek osatutako Barne Taldea koordinatzea: Berdintasuna, Hezkuntza Ikuskaritza, Ikasketak Antolatzeko Atala, eta Programa osoaren jarraipena eta garapenaren Ebaluazioa.
- \* Ikastetxe Publiko guztietara eta Nafarroako funts publikoarekin finantzatutako ikastetxe guztietara orokortzeko araudia eta kudeaketa garatzea.
- \* Ikastetxeei jarraipena egitea eta laguntza ematea prestakuntza-, barneratze- ezartze- eta orokortze-prozesu osoan zehar.
- \* Prestakuntza-eduki berriak eta orientabide-materialak garatzea, eta ikasgeletan aplikatzea.
- \* Ikastetxeei eta familiei laguntzeko edukiak sortzea.
- \* Toki-entitateekin, beste departamentu batzuekin eta zuzendaritza nagusiekin koordinatzea, hezkuntza-komunitatearentzako (batez ere, familiak eta gazteak) proiektu partekatu eta koordinatuak garatzeko aisiako eta denbora libreko espazioetan, etab.
- \* Programaren ebaluazioa eta edukiak zein prozesuak egokitzea.
- \* Jarraipen- eta ebaluazio-plana diseinatzea.

# SKOLAEREN HELBURU NAGUSIA

***Norberaren bizitza-proiektua aukeratzea, askatasunetik eta aukera-aniztasunetik, genero-baldintzatzailerik gabe, berdintasun-eza identifikatzen, haren aurka borrokatzen eta berdintasun-eskubidea gauzatzen (kultura, erlijio, gizarte-klase, egoera funtzional bakoitzaren esparruan) ikasita.***

Hau da, neskatoek nahiz mutikoek beren bizitza-proiektua eraikitzean ez dute beren askatasuna eta aukera-aniztasuna mugaturik izan behar zein gauzan diren mutilenak eta zein neskenak bereizten dituzten kontuengatik, edo neskatoa edo mutikoa izateagatik dagozkien pribilegio edo betebeharrengatik.

Beren bizitza askatasunez eraikitzeak zera esan nahi du, gizarte honetan indarkeriarik gabeko harremanak izaten ikasi behar dutela, indarkeriak eta beldurrak pertsonen askatasunaren kontra egiten dutelako. Hala, gure gizartean historikoki izan den emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria prebenitzea da programaren oinarrietako bat.

Bizi-proiektu horrek aukera-aniztasunean egon behar du oinarrituta, gizakiak askotarikoak direlako beren bizitzeko eta harremanak izateko moduari dagokienez, maila pertsonalean, profesionalean, familiakoan nahiz sexualean. Aniztasuna errespetatzen ikasiz, gure seme-alabak prestatzen ari dira gero eta askotarikoagoa eta pluralagoa den gizarte honetarako.

Berdintasun-ezak identifikatzen, ulertzen eta horiek aldatzeko gaitasuna garatzen ikasi behar dute, berdintasunerako eskubidea erabiliz, besteak beste, beren kulturaren, erlijioaren, gizarte-mailaren, sexu- edo identitate-sexualaren eta egoera funtzionalaren arabera. Horretarako, berdintasunean eta indarkeriarik gabe bizitzeko gai diren gizonen eta emakumeen eredu berriak erakutsi behar dizkiegu.

## ZER HEZKUNTZA-MAILATARAKO SORTU DEN

Programak jardueren ibilbidea aurkezten du lehenbiziko urteetatik (Haur Hezkuntza) ikasleek unibertsitateaz kanpoko ikasketak bukatu arte (Batxilergoak eta Lanbide Heziketako Zikloak).

Jarduerak eta ikaskuntzak adin bakoitzeko ikasleen garapen-mailara eta beharretara egokituta daude, eta ikastetxe bakoitzeko irakasleek berek ikasgeletan erabiltzeko diseinatuta dago ezartze-prozesua.

## SKOLAEk hezkuntza-maila guztietarako edukiak proposatzen ditu, berdintasuna barneratzera eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egitera bideratuta.

Berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloko aurrerapenak sustatu nahi ditu programak; bi helburu horiek, oro har, ongi barneratuta daude gizartean, baina ekintza antolatuak behar dituzte lehen hezkuntza-etapetatik progresiboki ikasiz joateko.

## SKOLAEk ZEIN HEZKUNTZA-ARLOTAN HARTZEN DUEN ESKU

Zenbait ikaskuntzak gure identitate pertsonala eraikitzearekin dute lotura, indibidualak dira eta gure izateko eta jokatzeko modua osatuz joaten dira. Ikaskuntza horiek gizon, emakume, neskato eta mutiko bakoitzaren **eremu pertsonala**ren barruan daude, eta norberaren gorputza, gaitasunak eta mugak ezagutzea hartzen dute barne, baita norberaren nahiak eta emozioak ere.

Beste alde batetik, gizakiak harremanak izaten ditu; ez da beste pertsonetik harremanetatik at bizi den izaki bakartua. Beste pertsonetik harremanen bidez ikasten dugu jokatzeko: elkarrekin bizitzen, gure inguruko pertsonekin jokatzeko, besteak errespetatzen eta gure eskubideak eta betebeharrak ezagutzen, baita beste pertsonenak ere. Ikaskuntza horiek guztiak **harremanen arloan** egonen lirateke integratuta.

Eta, azkenik, gizartearen parte gara eta hura ulertu eta hobetzen saiatu behar genuke. Gure toki-ingurunearekin ditugu harremanak; gizartearen arabera aztertzen ditugu portaera-ereduak; berdintasun-ezak eta hobetzeko gaiak azaltzen ditugu, eta gure aletxoak jartzen dugu gure gizartea hobetzen saiatzeko. Pentsamendu kritikoa gizarteak aurkezten dituen ereduaren arabera sortzen dugu, eta eredu berdinzaleagoak, bakezaleagoak eta bidezkoagoak eraikitzen laguntzen dugu. Hori guztia **gizartearen edo testuinguruaren arloari** legokio.

SKOLAEk arlo pertsonalerako, harremanen arlorako nahiz gizartearen arlorako helburuak eta jarduerak ditu; izan ere, ikuspegi globala aintzat hartuz ulertzen da pertsonen hezkuntza; banakoaren, harremanen eta gizartearen arloak elkarren artean lotzen dira ikasteko eta mundu hobea lortzeko. 😊

# 4. BERDINTASUNEAN BIZITZEKO LAU IKASKUNTZA HANDI

SKOLAE programak lau ardatz edo ikaskuntza biltzen dituen ibilbide bat proposatzen du, eta, horietarako, ikasgeletan lantzeko jarduerak eta edukiak proposatzen ditu.

## ZERGATIK LAU ARDATZ HORIEK?

Txiki-txikitatik eta gure bizitza guztian zehar emakumeek eta gizonek modu desberdinean ikasitako gauzak konpentsatzen dituzten ikaskuntzat hartzen ditugulako.

- \* Berdintasun-eza identifikatzea.
- \* Izateko eta harremanak izateko eredu berriak bilatzea.
- \* Besteak zaintzeko eta gure burua zaintzeko gai izatea.
- \* Independentek izatearen garrantziaz ohartzea.
- \* Proiektuetan buru izateko eta hobekuntza sozialetan parte hartzeko gai izatea.
- \* Nork bere bizitzari buruzko erabakiak hartzeko gaitasunaz ohartzea.
- \* Bizitza afektibo eta sexual positiboa sustatzea, errespetua eta erantzukizuna oinarritzat hartuz.
- \* Tratu onetan oinarritutako harremanetarako gaitasuna eskuratzea, bizitzaren arlo guztietan.

Eduki horiek landuz, ikaskuntzak eta esperientziak jartzen ditugu ikasleen eskura, zertarako eta ikasitako berdintasun-ez hori orekatzeko, eta beren bizitza eta harremanak modu zoriontsuago eta osatuagoan eraikitzeko desberdintasun-ezik eta mugarik gabe.

## Hauexek dira lau SKOLAE ikaskuntza:



Ikaskuntza horien eta dagozkien gaitasunen bidez, hezkidetza-eskolak eduki komunak integratzen ditu eskola-etapa guztietan:

- Emakumeak eta haien ekarpenak ikusgai egitea.
- Identitateak, kulturak, sexualitateak eta haien aniztasuna errespetatzen ikastea.
- Berdintasunezko maskulinitate berriak eta feminitate ahaldunduak ikastea.
- Ingurunean parte hartzea, berdintasuna errealitate eginda.

**Hezkuntza-zentroetan hezkidetza-kultura eta -identitate bat sortzea da SKOLAEren ikaskuntzen helburua, nola eta familiekin partekatuz hurrei berdintasunezko gizon-emakume gisa hazi ahal izateko balio, eredu eta erreferentziak transmitituko dizkien heziketa bat.**



# → 1. ARDATZA: KRITIKA ETA ARDURA BERDINTASUN-EZA DELA-ETA

## BEGIRATZEN JAKITEA, ULERTZEN JAKITEA

Ikaskuntza horrek pertsona kontziente eta arduratsu bilakatzen gaitu, bai banako gisa, bai kolektibo gisa, baita pertsona aktibo eta kritiko ere berdintasunerako bidean. Haren bidez, gure bizitzarako berdintasunezko eredu eta proposamenak ezagutzen ahal ditugu.

**Honako gaitasun hau garatu nahi du: generoaren arloan dagoen berdintasun-eza identifikatu eta aztertzea, zein hari aurre egiteko eta hura eraldatzeko ardura nork bere gain hartzea.**

Denok dakigu errealitatea aztertzeko gai ez bagara ez garela hura hobetzeko gai izanen. Gure burua pertsona berdinzale gisa eraikitzeko, gure ingurunea aztertzen jakitea da lehen pausoa, eta, beraz, gure gizartean sortuz eta eguneroko mezuen bidez betikotuz joan diren genero-desberdinkeriez ohartzea; besteak beste, publizitatearen, bideojokoen, abestien, filmen, telesailen eta gizarte-sareen bitartez ailegatzen zaizkigu horiek.

Berdintasun ezaz ohartuta bakarrik sortuko da horien kontra borrokatzeko beharra. Ez eskolak ez familiak ezin dituzte haurrak "giltzapetu" eta isolatu, oraindik ere bizi dugun sexismoak eragin ez diezaien; hala, beharrezkoa da ikasleei hori hautematen irakastea, gizartean espiritu kritikoarekin moldatzen jakin dezaten, eta, hala, egunerokoan aukera-askatasun handiagoa izan dezaten.

Egia da gizarteak aurrera egin duela azken urteotan, baina, halaber, egia da oraindik baduela sexismoaren eta berdintasun ezaren aztarna handi bat, eta hura aztertu eta ulertu behar dugu.

Sexismoa aztertuz eta berdintasun-eza identifikatuz, ia berehala sortzen da horien kontra borrokatzeko beharra eta erantzukizuna.

Horregatik, sexismoa eta berdintasun-eza direla-eta sortzen den gaitasun kritikoa funtsezkoa da pertsonak beren gain har dezaten gizarte berdinzaleago eta bidezkoagoaren alde aurrera egitea.

**Familiek mundu bidezkoagoa nahi dute beren seme-alabentzat; inork ez ditu bere haurrak ohartuki hezten berdintasun-ezean, eta inork ez du bere seme-alaben bizi-aukerak mugatzerik nahi edo etorkizuna murrizterik nahi.**

**Eta, hala ere, sexismoa baztertzen ez duen hezkuntza batek, berdintasun-ezari eusteaz gain, alderdi guztietan zorigaiztokoagoa den bizimodu bat ekartzen du.**

**Horregatik, honako hau da SKOLAEren lehen ardatza edo ikaskuntza: berdintasun-ezak aztertzea, modu bateratuan ingurune bat sortzeko, non gure seme-alabak bizi ahal izanen diren askatasunean eta berdintasunean.**

Berdintasunerako eskubideak, adostasuna eskatzeaz gain, konpromisoa eskatzen digu. Hezkuntzako berdintasunak berekin dakar hezkuntza-ekintzaren konpromisoa, hura erdiesteko.

Ezin dugu esan berdintasunaren alde gaudela eta aldi berean berdintasun- ezaren kontra jokatzeari uko egin. Berdintasun-ezak direla-eta ezin da jarrera pasiborik izan; jarrera aktibo zehatzak behar dira hausnarketatik ekintzara joateko.

Hala ulertu behar dugu familiek nahiz eskolak, berdintasuna lortzeko helburu horretan elkarrekin joan behar baitugu, heldu diren belaunaldiek kontzientzia handiagoa izan dezaten eta desberdinkeria

### Berdintasun ezak honako alderdi hauek ditu, besteak beste:

- \* Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala, emakumeek soldata eta kontratu okerragoak baitituzte.
- \* Emakumeek lan-gainkarga izaten dute, beste pertsonen zaintza-lanak eta etxeko lanak beren gain hartzen dituztelako.
- \* Emakumeek denbora gutxiago izaten dute bai aisialdirako bai atseden hartzeko.
- \* Ikasketa-orientazioa eta lan-itxaropenak generoak markatzen ditu.
- \* Emakumeek zailago dute erantzukizun-postuetara, botere ekonomikora eta erabakitzeke guneetara ailegatzeko.
- \* Lanaren eta familiaren arteko uztartzea desorekatuta dago, eta ama diren emakumeen gainean erortzen da karga.
- \* Maskulinitateari buruzko ideia batzuek gizonak bulkatzen dituzte beren emozioak ez onartu eta ez adieraztera, beharrezkoak ez diren arriskuak hartzera (osasun-arriskuak, errepideko arriskuak, arrisku-kirolak, beren burua eta beren elikadura ez zaintzea, nork bere burua ez zaintzea ekartzen duen maskulinitate tradizional baten alde egitea...), indarkeriazko harremanak izatera eta beharrezkoa ez den kontrola ezartzera.
- \* Feminitateari buruzko ideia batzuek honako hauetara bulkatzen dituzte emakumeak: oldarkortasun maskulinoa imitatzeke jarrerak hartzera; estetika hipersexualizatuak hartzera gazte-gazterik; harremanetan mendekotasun-rolak hartzera “egokitza” jotzen diren zenbait indarkeria-kutsurekin, onarpen soziala lortzearen truke; puskatu ezin dituzten indarkeriazko harremanak izatera; egiatan nahi ez dituzten sexu-harremanak izatera, eta abar.

gutxiago; belaunaldi horiek gai izan behar lukete emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko, hori baita berdintasun-ezaren eta maskulinitate toxikoen eraikuntzaren kasu muturrekoena.

SKOLAEk proposatzen duen bezala, gizarte osoak lan egin behar du indarkeria ezabatzearen alde, eta pertsonak txiki-txikiak direnetik hasi behar dugu. Horregatik, ardatz horretan, maskulinitatearen eta feminitatearen eraikuntza aipatzen da, gure ikasleek beharrezko estrategiak ikastea nahi baitugu sexismotik eta berdintasun-ezetik at dauden gizon eta emakumeak izan daitezen.

**Beren burua berdintasunean eraikitzeko, gai izan behar dute berdintasun-ezaz ohartzeko, hura ezabatzeko erantzukizuna hartzeko, eta berdintasunaren erreferente diren ereduak ikusgai jartzeko, bai maskulinoak, bai femeninoak.**

Funtsezkoa da, beraz, gizarte sexista batetik jasotako eragina zalantzan jarriko duten azterketa-gakoak ezartzea, progresiboki eta txiki-txikiak direnetik.

Gizon-emakumeek giza eskubide guztiak osorik gauzatzeko aldarrikapen zorrotzak berdintasunaren balioa azpimarratuko du justiziaren printzipio etikoaren barruan. Bizitza seguru eta osoa izateko eskubideak beharrezkoa egiten du genero-indarkerien sintomei ahalik eta goizen antzemateko gaitasuna, baita indarkeriei aurre egiteko estrategiak egituratzekoa ere.

Azterketa-gako horiei esker, progresiboki jakinen dugu emakumeek gizarteari egindako ekarpenei entzungor (ikusgor) egin zaiela, eta ikusezintasun hori iraunarazten duten elementu sexistak

(hizkera, hedabideak eta kultura-transmisioa, oro har) identifikatu ahal izanen ditugu.

Hori dela eta, aro bakoitzak emakumeei ezarritako mugak hautsi zituzten emakumeen adibide motibatzailea baliatu behar da: emakumeentzat ia debekatuak ziren eremuetan aitortza jasotako itzaltsuak; gaur normaltzat jotzen ditugun ekintzak egiten hasi ziren aitzindariak; beren adore eta ideiegatik jazarritakoak... Berdintasunarekin konprometitutako gizonak ere aipatuko dira, aitortza urria egin baitie historiak.

Gure ingurune hurbiletik ere biltzen ahal ditugu emakumezko eta gizonezko izateko beste modu batzuk erakusten dituzten erreferentziazko figura horietako batzuk, gizarteak berengandik espero zuen eredu horri jarraitu ez diotenak, eta berdintasunerako eskubidearekin konprometitutako identitate askotarikoei lekua (arloan publikoan nahiz pribatuan) egin diotenak.

Elkarbizitza-harreman osasuntsu eta bidezkoagoen testuinguru berriak aurkeztu behar zaizkie gure seme-alabei, baita gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatuko duten gizarte-antolakuntzako jokabideak ere.

Eskolak gai izan behar du eredu berdinzaleago zehatzak identifikatzeko, identitate berdinezaleagoa lortzeko konpromiso pertsonalerako erreferente izanen direnak, bai neskentzat, bai mutilentzat. Halaber, berdintasunaren alde herritarrek zein elkarteek ingurune sozialean bultzatutako mugimendua (bai gizonek edo emakumeek soilik eratua, bai gizon-emakumeek elkarrekin eratua) ikusaraztea sustatu behar da.



# Helburuak \*

<p><b>EREMU PERTSONALA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Berdintasun-ezaren inguruko pentsamolde kritikoa sustatzea ikasleengan, generoari dagokionez, azterketa-gakoak ekarrita hainbat egoeraren kausak identifikatze aldera.</li> <li>✓ Ikasleek bizitza-proiektu propioaren garapena mugatzen duten genero-mandatuak identifika ditzatela sustatzea.</li> <li>✓ Nor bere aldaketa pertsonalaren egilea delako eta identitate berdinzale propioa (feminitate eta maskulinitate hegemonikoez harago) garatzen ahal duelako kontzientzia hartzea.</li> </ul>
<p><b>EREMU SOZIALA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Emakumeek emandako zaintzen balioa ikusarazi eta aitortzea, zein hainbat alorretan (zientzia, kirola, asmakizunak, literatura...) nabarmendutako emakumeak ezagutaraztea, baita emakume borrokalariak eta berdintasunarekin konprometituak ere.</li> <li>✓ Feminismoaren eta mugimendu sufragistaren historia, gaur egungo mugimendu feministak eta berdintasun-politiken sustapenean horiek duten eragina ezagutzea.</li> <li>✓ Ikasgelan, genero-rol eta -estereotipoak hausten dituzten gizon-emakumeak aurkeztea.</li> </ul>
<p><b>HARREMANEN EREMUA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Jasotako zaintzak emateko egin beharreko lanak identifikatzea, baita pertsona bakoitzak haietan jokatzeko ahal duen papera ere.</li> <li>✓ Harremanetan erantzunkidetasuna sustatzea (elkarrekiko zaintzetan eta autonomian oinarritu behar lukete harremanok).</li> <li>✓ Sexu desberdineko ikasleen arteko harremanetan genero-lerratzak aztertzea, indarkeriarik gabeko harreman berdintasunezkoak sustatuta.</li> </ul>

\* Hezkuntza-etapa guztietarako.

# Oinarrizko edukiak

Helburu horiek lortzen aurrera egiteko, hezkuntza-etapa guztietan komunak diren oinarrizko edukiak landuko ditugu, eta, pentsatzekoa den bezala, adin bakoitzaren ulermen-eta analisi-gaitasunera egokituko dira.

Ardatz guztietako ikaskuntza-helburuak eta horiek errazten dituzten jarduerak profesionalak diseinatu eta aztertu dituzte: hezkidetzako profesionalak, psikologiakoak, sexologiakoak eta pedagogiakoak; eta maila bakoitzeko irakasleentzat daude prestatuak; hala, bere prestakuntza-prozesuan zehar eta on-line egindako tutoretza-saioen

laguntza eta aholkuen bidez, irakasle bakoitzak bere edukiak aztertzen ditu, eta ikasgelara egokitu eta han garatu, ikasgaien edo tutoretza-saioen garapen normalean integratuz.

Ekintzak lan-proposamenak dira, ikaskuntza-iradokizunak, eta hausnarketa pertsonala bultzatzeko, eta elkarrizketa eta ikasgelako talde-lana sortzeko ideiak.

Ikasgela eta ikastetxe bakoitzeko ohiko jarduerari jarraituz diseinatu eta garatuko dira, betiere elkarrizketa, errespetua eta baterako hausnarketa sustatzen duten ingurunetan.

## **Berdintasunaren balioa.**

*Ardura partekatuak, pertsona guztien balio bera onartzea eta bizi-proiektua aukeratzeko askatasuna*

## **Berdintasun-eza nola eraikitzen den.**

*Ohartzea neskak eta mutilak desberdin tratatzea berdintasun-ezaren kausa dela. Berdintasun-ezaren identifikazioa eta desnaturalizazioa. Berdintasun-ezak harremanetan identifikatzea.*

## **Emakumeak ikusgai egitea.**

*Lan guztiei balioa aitortzea, baita tradizionalki emakumeei esleitutako lanei ere. Emakumeek egindako ekarpenak aitortzea. Berdintasuna lortzeko mugak puskatu zituzten pertsonen balioa aitortzea.*

## **Oinarrizko edukiak**

## **Aldaketarako gaitasuna.**

*Berdintasunerako aldaketan lehentasunak identifikatzea . Tratu onak eskatzea eta eraikitzea.*

## **Identitate berdinzale berriak.**

*Identitate, rol eta harreman sozial berdinzale eta askotarikoak identifikatu eta aldarrikatzea.*

## → 2. ARDATZA: AUTONOMIA ETA INDEPENDENTZIA PERTSONALA

### IZATEN JAKITEA, BIZITZEN JAKITEA

Zereginen eta arduren banaketan eta neska-mutilen bizi-aukeretan desoreka ezabatuko duen bizi-proiektu batera eraman nahi gaitu ikaskuntza horrek. Ingurune aske eta independenteetan geure burua eta besteak zaintzen ikasiz.

**Zaintzak nork bere gain hartzeko eta lan-munduan parte hartzeko gaitasuna garatu nahi du, norberaren autonomia eta independentziarako oinarri gisa bizi-proiektu berdinzale batean.**

SKOLAEren bigarren ardatzak autonomia eta independentzia pertsonala ditu gune, batetik, zaintzekin zerikusia duten lanekin lotuta, eta, bestetik, enpleguak –hau da, ordaindutako lanak– gure ikasleen bizi-proiektuaren parte izan behar duelako ideiarekin lotuta, hori baita autonomiaren eta independentziaren bermea.

Autonomia pertsonala hezteko lehen alderdietako bat gure emozioekin lan egitea da: horiei izena jartzen jakitea, horiek modu baketsuan adierazten jakitea, partekatzen jakitea eta, orobat, kontrolatzen jakitea. Horregatik, ardatz horretan, adimen emozionalarekin lotutako jarduerak ageri dira, emozioekin loturikoak, baita gizaki gisa modu autonomo eta independentean eraikitzearekin loturikoak ere.

### **Autonomia eta independentzia pertsonala haurren garapen emozionalaren gako dira.**

Egiten dituzten lanei dagokienez emakumeek eta gizonek duten kokaleku desberdina aztertuko dugu ardatz horretan, autonomiarekin eta independentzia pertsonalarekin harreman zuzena baitu. Zalantzarik gabe, badago lanaren sexu-banaketa argia, eta badaude tradizionalki gizonek egindako lan batzuk eta tradizionalki emakumeek egindako beste batzuk. Edozein kulturatan, ardurak normaltasunez antolatu eta banatzearen ondorio izaten ahal litzateke hori. Familia-unitate bakoitzaren beharrei ahalik eta hobekien erantzuteko ezarritako sistema bat.

**Hala ere, lanaren banaketa horrek ez ditu berdin balioesten gizezkoak eta emakumezkoak esleitzen zaizkien lanak. Eta teorikoki zaintza-lanak balioesten baditugu ere, egia da tradizionalki gizezkoak esleitutako eta haiek betetako lanek, lanbideek eta jarduerak jasotzen dutela prestigioa, ordainketa eta gizarte-onarpena.**

Egia da emakumeak lan-mundura eta ordaindutako enplegura sartzen ari direla. Hala ere, gehienek lanpostu okerragoak dituzte, emakumeek tradizionalki egindako lanak izaten dira eta ezegonkorragoak. Horretan aurrera egin bada ere, oraindik ere ez da neurri berean sortu gizonen erantzunkidetasuna etxeko lanetan eta zaintza-lanetan.

Egoera hori zuzenean lotuta dago gure ikasleek aukeratzen dituzten ikasketak eta lanbideekin. Gaur egun, hezkuntza-berdintasunaren alde izan diren aurrerapenak eta aldaketak gorabehera, genero-estereotipoek zehazten dituzte oraindik ere ikasleen hautu pertsonalak eta profesionalak.

Askotan uste izaten dugu enpleguak eta lanbideak lortzea eta aukeratzea naturalki gertatzen dela eta pertsonen aukeraketa libreari dagokiola. Hala ere, txiki-txikitik haurrek jasotzen dituzten eredu eta erreferentziei begiratzen badiegu, egiaztatuko dugu batzuek zein besteek etengabe jasotzen dituztela mezuak non adierazten baita lanbideak, lana eta lan-munduko kokalekua desberdinak direla gizonentzat eta emakumeentzat.

Halaber, ikasleek aditu eta sumatzen dute badirela ikasketak batzuk egokiagoak direnak mutikoentzat eta beste batzuk, neskeentzat. Ikasgeletan ohikoa da entzutea, adibidez, mutilak matematikan

hobeak direla neskek baino, edo idazketan hobeki moldatzen direla neskek mutilak baino, edo mutilak argiak direla eta neskek, langileak.

Kasu gehienetan, mezu eta balioespen horiek modu inkontzientean transmititzen dira, ohartu gabe zer-nolako eragina duten ikasketak eta lanbideak aukeratzean nahiz beren bizitzak antolatzean.

### Ikus ditzagun adibide batzuk:

- \* Familietan erantzunkidetasunik ez badago, ikasten dute etxeko lanak eta besteak zaintzea emakumeen kontuak direla.
- \* Etxean nahiz eskolan erabiltzen dituzten liburuetan kirol- eta abentura-irudietan gizonak bakarrik badira protagonistak, ikasten dute gizezkoen jarduerak direla.
- \* Jostailuen liburuxkan ikusten badute neskatoentzako jostailuak edertasunarekin, etxeko lanekin eta zaintza-lanekin lotuta agertzen direla, ikasten dute hori berentzat dela, eta autoak, eraikuntzak eta teknologia, berriz, mutikoentzat.
- \* Ezagutza zientifikoari buruz ikasten dutenean batez ere gizon zientifikoak izenak aipatzen badira, ikasten dute zientzia gizezkoena dela.
- \* Historia, artea, musika, fisika edo matematika ikastea, gizezkoek gai horietan sortutako ezagutza erakusten bada, ikasten da protagonismoa gizezkoak dagokiela.
- \* Eta abar.

Hala, neskek eta emakumeak hazten dira sumatuz emakumeen munduak balio gutxiago duela, gizarte-onarpen handiena gizonen munduaren inguruan dagoelako, tradizionalki mutileri eta gizonei esleitu eta haiek egiten dituzten jarduerak eta lanetan.

Horregatik, uste badugu ere sexu bakoitzean gaitasun eta interes desberdinak daudelako aukeratzen direla ikasketak eta lanbideak, txiki-txikitatik transmititu ditugun mezu desberdinekin du harreman zuzena.

Egia da gizarte honetan aurrera egin dugula horri dagokionez, eta, dagoeneko, familia askok ez dute murrizten beren seme-alaben bizi-proiektua gai horietan, baina, Lanbide Heziketako zikloetako matrikula-datuei begiratzen badiegu, ikusiko dugu Automobilgintzan izena ematen duten pertsonen %100 gizonetzkoak direla, eta, Estetikan izena ematen dutenen %100, berriz, emakumezkoak. Gauza bere gertatzen da ingeniari- eta teknologia-ikasketetan eta osasun-zientzietan, lehenbizikoetan erabateko gehiengo baitira gizonetzkoak, eta bigarrenetan, berriz, emakumezkoak.

Eraitza horiek gure kulturaren ondorio dira, eta, beraz, bada aldatzeko eta garatzeko aukera, gure seme-alabek beren lan-bizitzari askatasun eta aukera-aniztasun handiagoz ekin diezaioten. Eta aldi berean, berdintasunez ekin ahal izan diezaioten, etxeko lanak eta zaintza-lanak erantzunkidetasunez partekatzen direlako.

**Txiki-txikiak direnetik zabaldu behar dugu aukera-sorta, beren gaitasun, trebetasun eta interes pertsonalen arabera aukeratutako lanbide edo lanetara bideratura, zer sexutakoak diren kontuan hartu gabe.**

Ohartu behar dugu zein garrantzitsuak diren transmititzen ditugun mezuek, ipuinen bidez, irudien bidez, komentarioen bidez..., hala, haurrek egiatan sentitu eta pentsa dezaten ikasketa eta lanbide guztiak dituztela eskuragarri. Horrela bakarrik aukeratu ahal izanen dute erreparorik gabe modu independente eta autonomoan bizitzeko aukera ematen dietenak.

SKOLAEk lanbideen eta lanen esparruko estereotipoak puskatzeko asmoa duen hezkuntza-lana sustatzen du, eta, hala, aukera posibleen zerrenda zabaltzen die bai neskei, bai mutileri, beren autonomia eta independentzia pertsonalaren garapenari ere zuzenean lotutako prozesu gisa.





Emakumeak eta gizonak enpleguaren munduan berdintasunean sartu, prestatu, sustatu eta hobetzeko bermatu behar da etxeko lanak eta zaintza-lanak modu bidezkoan partekatzen direla. Ardura-berdintasunik ez badago, ezin izanen da aukera-berdintasuna bermatu.

Bizitzan dugun denbora errealarekin dago lotuta. Emakumea izateagatik, askoz ere ordu gehiago eman behar badituzu zurekin inork partekatzen ez dituen etxeko lanak egiten, askoz denbora gutxiago izanen duzu zure prestakuntzarako, zure lanbidea garatzeko eta zuretzako denbora izateko. Datu objektiboek erakusten dute Espainian etxeko lanen ia %70 emakumeek egiten dutela, eta horrek erakusten du erantzunkidetasuna oraindik gainditu gabeko ikasgaia dela gure gizartean.

**Gure seme-alabek independente eta autonomo izateko jarrera eta gaitasunekin bilakatu behar dute heldu, etxeko lanei dagokienez (kuzinatu, plantxa egin, garbitu, erosketak egin...). Erantzunkidetasun-jarrera izan behar dute beren bizitza bikotekide batekin edo beste pertsona batzuekin partekatzea erabakitzen dutenean.**

Neskatoek zein mutikoek progresiboki eta beren adinaren arabera ikasi behar dute modu autonomoan beren oinarrizko beharrei erantzuten, hala nola higienari, beren buruaren eta besteen zaintzari, familia-ekonomiari eta etxeko antolamenduari. Oinarrizko ikaskuntzak izanen dira beren bizi-proiektua modu autonomoan gara ditzaten.

Nahitaezkoa da gizonek etxeko lanetan dagokien zatiaren ardura hartzea, ez "lagunduz", baizik eta egiatan erantzunkidetasunez jokatu. Eta eskolaren nahiz familien ardura da ikaskuntza horiek erraztea modu bidezkoan txiki-txikiak direnetik, berdintasun-ereduak bilatuz gure familia- nahiz eskola-antolamenduan.

### SKOLA EK BI NORABIDETAN LAN EGITEA PROPOSATZEN DU:

Ohartzea etxeko lanak eta zaintza-lanak ezinbestekoak direla eta modu bidezkoan partekatu behar direla emakumeen eta gizonen artean.

Eta lan horiek egin ahal izateko behar diren gaitasun eta ezagutzak ikastea sexua aintzat hartu gabe.

Ikaskuntza horiek bermatzeko, funtsezkoa izanen da familiak eta eskolak elkarrekin lan egitea, hala ondotik heldu diren belaunaldiek beren bizitza pertsonalaren ardura hartu ahal izan dezaten beste pertsona batzuen mende egon gabe eta historikoki emakumeen lan-proiektuak oztopatzen dituen genero-desberdinkeriarik gabe.

**Horregatik, honako hauekin lotutako gaiak aztertu eta lantzen dira: elikadura, garbitasuna, espazioak zaintzea, pertsonak zaintzea, jasotzen dugun zaintza balioestea, emakumeek eta gizonek zaintza-lanetan emandako denborari dagozkion desberdintasunak ikusgai jartzea, etab.**

**Gizartea hobetzea eta pertsonen arteko harremanak hobetzea da helburua, denbora propioekiko errespetu eta partekatutako erantzukizunekiko errespetu komunean biziko baitira, eta, hala, harreman ez hain gatazkatuak eta zoriontsuagoak izanen baitituzte.**

Beste alde batetik, ardatz horretan independentzia lantzen denean, gizakiari datzekion bi arlo lotzen dira: etxearen arloa eta lanbidearen arloa. Etxearen arloari dagokionez, arreta berezia eman zaio bizitzaren garapenerako funtsezkoak diren ezagutza horiek aitortu, balioetsi eta ikasteari. Lanaren arloari dagokionez, egungo gizartean, oro har, uste izaten da independentzia ekonomikoa lotuta dagoela bizitza propioari buruzko erabakiak hartzeko askatasun handiagoa izatearekin, beste pertsonen mende egon gabe.

Arlo horretan, aipamen berezia egin behar zaio neskengan lanbidea bizitza-proiektuaren gunea izateari; izan ere, horri dagokionez asko aurreratu bada ere, neskek arrisku handiago dute beren lanpostuak uzteko zainketengatik edo beren bikotekideen garapen pertsonalarengatik. Horrekin, beren independentzia eta beren oraingo eta geroko segurtasun ekonomikoa murrizten zaizkie.

Beste behin ere, gako izanen dira erantzunkidetasunean hezte eta zainketen konpromiso partekatua izatea, emakumeak lan-mundutik partzialki edo aldi baterako urrun ez daitezen, bestela garapen profesionalerako aukerak eta segurtasun ekonomikoa galduko baitituzte.

Illo horretan, SKOLAEk hausnarketarako, autoanalisirako, eta kritika eta eztabaida partekaturako zenbait jarduera proposatzen ditu, hala, ikasketen eta lanbideen aukera guztiak izateko, baita lan-mundua ezagutzeko aukerak zabaltzeko ere, bai neskentzat bai mutilentzat onuragarriak direlako.

Familiak eta eskolak etxeko erantzunkidetasunean eta independentzia ekonomikoan heztearen aldeko apustua egiten badute, gure seme-alabak hurbilago egonen dira berdintasunetik eta genero-indarkeriari aurre hartu eta aurre egitetik.

# Helburuak \*

## ESPARRU PERTSONALA

- ✓ Mota guztietako zaintza-lanak egiten ikastea, bai nork bere burua zaintzekoak, bai gainerako pertsonak zaintzekoak.
- ✓ Aitortzea zer garrantzitsua den zaintza-lanak eta enplegua orekatzea bizitza-proiektu berdinzaleago bat garatze aldera.
- ✓ Ikasleei genero-lerratzetik gabeko orientabide akademiko-profesionala ematea hezkuntza-ibilbide guztian zehar.

## EREMU SOZIALA

- ✓ Hausnarketa eginaraztea gaur egungo eredu ekonomikoak garapen jasangarrian duen eraginari buruz, aztertzeko pertsona guztien eskubideak babesten ote dituen.
- ✓ Gizon zaintzaileen erreferenteak ematea ikasleei, estereotipatu gabeko lanbideetan aritzen diren emakume eta gizonenak...
- ✓ Generoaren arloko berdintasun-eza aztertzea zaintza-lanetan eta lan-eremuan, eta ikasleek generoaren gainean dituzten ezagutzak handitzea (lanaren sexu-banaketa, soldata-arrakala, segregazio horizontala zein bertikala, sexu-jazarpena eta jazarpena sexu-arrazoiengatik...).

## HARREMANEN EREMUA

- ✓ Jasotako zaintza-lanen balioa aitortzea, baita haiek eman dizkiguten pertsonena ere.
- ✓ Erantzunkidetasunaren kultura bat sustatzea harremanetan, denborak eta lanak modu bidezkoan banatuta.
- ✓ Ikasleen artean lanak eta rolak banatzea, genero-lerratzetik gabe, lantaldetan ari daitezen.

\* Hezkuntza-etapa guztietarako.

# Oinarrizko edukiak

Helburu horiek lortzen aurrera egiteko, jarraian azaltzen diren oinarrizko edukiak landuko ditugu, hezkuntza-etapa guztietan, eta, espero izatekoa den bezala, adin bakoitzaren ulermen- eta analisi-gaitasunera egokituko dira.



### 3. ARDATZA: LIDERGOA, AHALDUNTZEA ETA PARTAIDETZA SOZIALA

#### ERAIKITZEN JAKITEA, EKARPENAK EGITEN JAKITEA

Ikaskuntza honek indartu egiten gaitu, bai banako gisa, bai kolektibo gisa, eta bizitza sozialean berdintasunetik eta errespetutik parte hartzeko gaitasuna ematen digu, gure botere pertsonala eta gure taldearena ezagutu eta aitortuta berdintasuna sortze aldera.

**Hauxe da ikaskuntza honen helburua: erabakiak hartzeko norberak duen gaitasunaz ohartzea, beste pertsona batzuen lana eta jarduna koordinatzea eta bultzatzea helburu komunak lortzeko, eta elkarrekin lan egitea berdintasuna gauzatzeko.**

#### EMAKUMEAK ESPAZIO PUBLIKOAN ETA PRIBATUAN

Historikoki, emakumeek etxeetako espazioa hartu izan dute gizartean. Lidergo politiko edo ekonomikoko postuak ez ziren emakumeentzako zeregintzat hartu XX. mendeak aurrera egin arte. Politikak, ekonomiak, zientziak eta erlijioak familiaren eta zaintzaren arlora zokoratu zituzten emakumeak, etxeko espazio pribatura, eta mundu publikotik, erabaki politikoan eta ekonomikoan mundutik urrutiratu. Gaur egun ere, zenbait herrialdetan, emakumeek debekatua dute arlo publikoan aritzea.

Kontua da emakumeak historia guztian zehar izan direla proiektuen buru: bizitza zaintzeko proiektuak, osasuna zaintzeko proiektuak, haurrak babesteko eta hezteko proiektuak, borrokan ziren kideei laguntza eta babesa emateko proiektuak, gatazka-garaietan erresistentzia- eta biziraupen-proiektuak, babes sozialeko proiektuak, etab. Oro har, zaintzarekin, hezkuntzarekin eta bizitzaren iraunkortasunarekin lotutako proiektuak izan dira.

Kulturaz eta tradizioz, emakumeak publikoki jarrera apala hartzeko hezi izan dira, beti bigarren mailan egonda, asko nabarmendu gabe. Halako hezkuntza jaso dute orain dela oso gutxi arte, bai familian eta bai eskolan. Mundu pribatutik haragoko itxaropenak zabaltzen dituen errealitate berri bat ekarri diete neskatoei emakumeak hezkuntza- eta unibertsitate-munduan sartu izanak, lan-merkatuan sartu izanak eta munduko emakume liderrak ikusgai jarri izanak.

Gure gizarte demokratikoak aurrera egin du arlo horretan, baina, oraindik ere, badaude berdintasun-gabeziak, emakumeak bigarren mailan uzten dituztenak. Enpresetako ardura-postuetan, alderdi politikoen botere organoetan, sindikatuetan... dauden emakumeen ehunekoek ez dute bat egiten emakumeen emaitza akademikoekin eta beren lan-itxaropen errealekin. Eta horrek zerikusia du emakumeak izateagatik dituzten ikaskuntza eta bizitza-itxaropenekin, baita jarrera baztertzailerekin edo merituen balioespen desberdinekin ere, horiek emaitza desberdinak sortzen dituztelako edo, behintzat, bat ez datozenak emakumeek lan-munduan zenbait ardura-postu hartzeko duten prestakuntza-mailekin.

Desberdinkeria horiek moldatzeko, familiak eta eskolak bat egin behar dute neskatoei nahiz mutikoei arlo sozial, politiko edo enpresarialerako lidergo-ikaskuntzak errazteko; ikaskuntza horiek aukera emanen diete arlo publikoan parte hartzeko, eta gaitasuna eman, erabaki-hartzea eta boterea berdintasunean eskuratu eta partekatzeke.

Neskatoek eta mutikoei barneratu eta garatu egin behar dituzte espazio publikoak eta pribatuak modu partekatuan hartzeko behar dituzten gaitasunak; hala, beren proiektu pertsonal eta profesionalak orekan garatu ahal izanen dituzte, eta egiazko berdintasunera ailegatu; neskatoen autoestimua eta segurtasuna sustatuko da arlo publikoan, eta mutikoen parte-hartze arduratsua, etxearen arloan.

**SKOLAEk honako hauek sustatzen dituzten ikaskuntzak sartu ditu ardatz horretan: ahalduentze pertsonala, autoestimua eta erabaki pertsonalak hartzeko aukera, talde-lanerako eta eginkizun baterako lidergorako, parte-hartze sozial eta demokratikoan oinarrituta.**

**Hala, sustatu egingen da neskek eta mutilek espazioak partekatzea, hala nola mintzatzeko, erabakiak hartzeko, helburuetara eta eginkizunetara bideratzeko, eta ikastetxean eta kanpoan parte hartzeko, bizitza-proiektu indibidualak eta kolektiboak garatu ahal izan ditzaten arlo publikoan.**

Edozein talde edo erakundetan lidergoa gauzatu ahal izateko, beharrezkoa da jakitea hura gauzatu egiten ahal dela, bere buruaren eta taldearen onarpena duela, horri buruzko mezu positiboak jaso izana eta, horregatik, autoestimua osasuntsua sortu izana. Horri dagokionez, neskatoen, nesken eta emakumeen gizarteratzea ez ohi da bideratu zuzendaritza-postuak eta botere-karguak betetzeko gai izan daitezten.

Emakumeak, gehienetan, beren autoestimua murriztu eta kaltetzen duten mezuekin hazten dira, eta sumatzen dute zuzentzeko edo botere-eskubidea izateko duten gaitasuna zalantzan jartzen zaiela. Emakumeek, hala, beren gaitasunak gutxien dituzte arlo publikoari dagokionez; segurtasun-eza izaten dute desafioak direla-eta, eta zalantza handiagoak izaten dituzte zenbait lan-arrisku hartzeko.

Jasotako hezkuntzan eta gure gizarteari dagokion kulturaren, espero da neskak lasaiak, goxoak, zaintzaileak, apalak eta baketzaileak izatea, beren eskubideen defentsa apala egitea eta mutilak bezain dinamikoak ez izatea.

Anbizioa ez da ontzat jotzen emakumeengan, eta oldarkortasuna, ausardia, arrazionaltasuna, lehiakortasuna, gaitasun analitiko eta arriskuak hartzea ezaugarri maskulinotzat hartzen dira. Neskengan ez dira ezaugarri horiek sustatzen ez balioesten, eta, askotan, arbuiatu egiten dira; beraz, funtsezko ikaskuntzak murriztu egiten zaizkie eta lidergotik eta boterea egikaritzetik urrunarazi. Izan ere, gure alabek oraindik ere entzuten ahal dituzte publikoki lidergoan edo zuzendaritzalanean ari diren emakumeei buruzko aipamen negatiboak edo nagusi gisa emakume bat baino gizon bat nahiago izateari buruzko aurreiritziak. Mezu horien guztien ondorioz eta karguetan (enpresak, politika-mundua, sindikatuak edo gizarte erakundeak) emakume gutxiago egotearen ondorioz sortzen den ideiak adierazten digu boterea ez dagokiela emakumei, eta ematen du hura egikaritzera ailegatzen direnak ez dagokien postu bat betetzen ari direla, edo zorrotzago ebaluatzen da haien lana.

Beste alde batetik, historikoki, gizonak bete eta zuzendu dituzte gure gizarte antolaketa, erakunde politikoak, sindikatuak eta enpresak, eta familiaren

eta gure inguruko pertsonen zaintzaren arloarekin bateraezin samarrak diren egiturak, antolatze-sistemak eta balioak garatu dituzte.

Egitura horiek betikotu egiten dituzte lanaren sexu-banaketaren inguruko rolak eta estereotipoak. Hala, gizon batentzat errazagoa da enpresa- edo politika-munduan arrakasta izatea familia izateagatik arazorik izan gabe. Emakumeek, berriz, antolamendu pertsonal eta familiarraren inguruko beste faktore asko hartu beharko dituzte aintzat, lan-, politika- eta gizarte-mundura sartu eta arrakasta izateko. Batzuentzako eta besteentzako kostuak ez dira berdinak; izan ere, oraindik ere, txikitatik transmititzen dugu gizonak "hornitzaileak" direla, lan egin behar dutela eta hori normala dela, eta emakumeak, berriz, "zaintzaileak" direla, lehenbizi zaindu egin behar dutela eta, gero, nahi badute, lan egin.

Horregatik, emakumeak lan munduan eta botere-postuetan sartzea sustatzen duten trebetasun eta gaitasunen garapenean aurrera egin ahala, saiatu behar dugu neskatoen eta mutikoen bizi-itxaropenak berdintzen. Horrekin, lan-, politika- eta gizarte-mundua gizonen, emakumeen eta beren familien beharretara egokitzen lagundu nahi da; hala, saiatu behar da zaintza, lan ordaindua, boterea egikaritzea edo ardura-postuak emakumeek nahiz gizonek modu berean bete ditzatela.



## AHALDUNTZEA ETA LIDERGOA HEZKUNTZAREN BIDEZ

Botereaz mintzaten garenean, honako hauetara ere zabaldu behar da kontzeptua: bizi-proiektua gauzatzeko autonomia pertsonala; harreman toxikoei aurre egiteko segurtasuna; eta nork bere bizitza kontrolatzea, bere ibilbidearen eta erabakien protagonista izanda, neskatoentzat eta emakumeentzat espero den bigarren mailako kokalekua hartu beharrean.

**Neska edo emakume batek bere proiektu pertsonal, afektibo, familiar edo profesionalari eusteko duen gaitasuna identifikatzeko erabiltzen dugu**

***ahalduntze pertsonala* terminoa, hori segurtasunez, asertibitatez eta autoestimu handiz gauzatu, bere bizitzan rol protagonista jokatuz eta genero-indarkeriatik aldentuta.**

Neskak ahalduntzean hezteak ere berekin dakar trebetasunak eta gaitasunak ematea genero-indarkeriari aurre hartzeko eta beren bizitzak emozionalki kudeatzeko. Halaber, mutilak maskulinitate berdinzaleetan hezi behar genituzke, ingurunearen eta pertsonen zaintzan, enpatian, berdintasunaren aldeko jarrera etikoan, hori bailitzateke hoberena emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko.

Lidergorako gaitasuna pertsona guztiek landu eta gara dezakete parte-hartzearen eta helburuetara bideratutako talde-lanaren bidez. Praktikaren bitartez ikasten da gaitasun hori, haren ezaugarriak ikasiz, eta haren garapena eta hobekuntza sustatzen duten gizarte- eta komunikazio-trebetasunak garatuz.

Ikasgela ingurune ezin hobea da lidergoa lantzeko, bai neskena bai mutilena, gizartearen mikrokosmos bat baita; komunikaziorako eta ahalduntzerako espazio segurua izan behar du.

✓ Eskoletan funtsezkoa da taldetan lan egiten ikastea, neskei aukera ematea proiektuak zuzentzeko eta pertsona-taldeak koordinatzeko, eta gatazkak modu baketsuan moldatzen irakastea.

**Eskola, beraz, ingurune bikaina da lan- eta gizarte-bizitzan lidergorako beharrezkoak diren gaitasunak eta trebetasunak lantzeko, eta arlo publikoan aldaketak sustatzeko, non neskek eta mutilek lidergoa gauzatu ahal izanen baitute eta besteena onartu, bai emakumeena, bai gizonena. Neskatoek eta mutikoek lan-taldeetako rol guztietan trebatu behar dute, eta ebaluatzen eta besteek ebalua ditzaten ikasi behar dute; hala, beharrezko trebetasunak eskuratuko dituzte talde bat eginkizun batera bideratzeko, eta haren helburuak lortzeko modu eraginkor eta efizientean, beren burua zalantzan jarri eta etengabe hobetzeko gaitasunarekin.**



Berdintasuna funtsezko erreferentzia-esparru gisa agertzen da lidergo demokratiko, bidezko, eta, aldi berean, etikoa gauzatzean. Lidergoa eta boterea gauzatzeko modua aztertuz, emakumeen lidergoen adibideak aurkitu ditugu mugimendu feminista, sozial eta politikoetan, eta emakumeak eta neskatoak garatzearen eta askatzearen aldeko ekintza publikoak martxan jartzea lortu dute horien bidez.

Mugimendu feministak eta, kargu politikoetatik, emakumeen aurrerapen kolektiboaren alde beren boterea erabili duten beste emakume batzuek gauzatutako lidergo eta ahalduntze kolektiboaren emaitza dira berdintasun-politikak. ♀

Beraz, gizarte-lidergo horietatik, mutilek ere ikasten ahal dute boterea ez dela beti “zerbaiten gaineko boterea”, baizik eta “zerbaiterako boterea” eta “boterea norbaitekin batera” ere badela, gizarte osoa eta ingurune zehatz bakoitza hobetzeko balio duena.

Erabakiak hartzen ere ikasi egiten da, eta nolabaiteko segurtasun- eta asertibitate-maila eskatzen du horrek. Nork bere eskubideak ezagutzea da ahalduntzearekin lotutako lehen gaietako bat, eta, halaber, berdintasun-ezak eta bereizkeriak hauteman ahal izateko analisi-estrategiak ikastea.

Tradizionalki, neskatoen jarrera ez-seguruagoa da; esaten duten eta egiten dutenari buruz, zalantzatan agertzen dira etengabe; beren burua gogorrago kritikatzan dute, eta beren buruari gehiago eskatu. Mutikoak, berriz, protagonista gisa hezten direnez, segurtasun handiagoa erakusten dute beren hitzetan eta ekintzetan. Beren buruari gutxiago eskatzen diote, baina emaitza hobeak lortzen dituzte parte hartze publiko eta sozialean.



Segurtasun pertsonalari dagokion **desoreka** hori konpentsatu egin behar da, bai familietan bai eskolan, halako moduan non mutilek nahiz neskek beharrezko segurtasuna sentitzen ikasiko baitute beren erabakiak hartzeko, galderak egiteko, informazioa lortzeko, iritziak emateko eta taldean beren ideiak partekatzeko.

Halaber, kultura orokorrak ekarri du arlo publikoan arriskuak hartzea maskulinitatearekin lotuta egotea, eta neskatoei eta emakumeei, berriz, arriskuak ez hartzen eta akatsetatik alde egiten irakatsi zaie, egiten duten guztian perfekzio-aire bat utziz beti. Emakumeek, gaur egun ere, gizonek baino askoz ere gehiago frogatu behar dute beren balioa arlo publikoan; hala, segurtasun-eza beti ageri da, gizartean interpelatzen baitzaie bai itxura fisikoari dagokionez, bai prestakuntza akademiko eta profesionalari dagokionez. **Arriskuei aurre egiteko eta horiek beren gain hartzeko gaitasunean dagoen desoreka konpentsatu eta ikasgeletan orekatu behar da, non neskatoei irakatsi behar baitzaie erronkei eta arriskuei aurre egiten, bai arlo pertsonalean bai profesionalean hez daitezen.**

Beste alde batetik, mutilek ikasi dute beren maskulinitate-irudiaren alde egin behar dutela, horretarako beren segurtasun fisikoaren kontrako arriskuak hartu behar badituzte ere. Maskulinitate tradizionalaren aldeko babes horren ondorioz, alkoholaren eta drogen kontsumo handiagoa dago mutilengan, neskengan baino, edo istripukopuru handiagoa, bai trafiko-istripuetan bai arrisku-jokaeren ondorioz, edo mutil gazte gehiago hiltzen dira neska gazte baino.

Horrek guztiak eskolan aurkitu behar du erantzun bat, maskulinitate berdinezaleak irakastearen bidez, denbora luzean zehar sustatutako ausardia-irudi hori eta arriskuarekiko jarrera horiek alde batera utzita; gainera, espero den jokaera hori betetzen ez duten mutilak estigmatizatu egiten dituzte.

Neskatoen kasuan, azpimarratu behar da pertsona bakoitzak bere bizitza-proiektua duela eta pertsona bakoitza hezi egiten dela nahi duen hori izateko eta nahi duen edo ahal duen tokira ailegatzeko, "beste pertsonengatik bizitzegatik" bere bizi-proiektua alde batera utzi gabe.

**Neskatoak eta mutikoak animatu behar ditugu beren bizi proiektuak berdintasunean garatzeko, prestakuntzarekin, autoestimuaarekin eta asertibitatearekin, gero beren bizitza partekatu eta berdintasunean bizi dezaten, bakoitza bere segurtasun eta botere pertsonalarekin lana eta ahalegina partekatuz beren baterako proiektuari eusteko.**

Nesken berdintasunezko ahalduntzea eta berdintasunarekin konprometitutako mutilen maskulinitatea harreman berdinezaleen eta indarkeriarik gabeko oinarria izanen dira. Bakoitzak bere bizitzaren protagonista izan behar duelako, bere proiektuaren protagonista. Horrela bakarrik izanen dira harremanak erabat bidezkoak, zuzenak eta erabat berdintasunezkoak, inolako mendekotasunik gabe eta berdintasuneko elkarbizitzan oinarrituta.

# Helburuak \*

## ESPARRU PERTSONALA

- ✓ Bakoitzak bere lidergo-gaitasuna ezagutzea sustatzea, erabili ahal izan dezan.
- ✓ Nesken autokonfiantza eta ahalduntze pertsonala sustatzea, hainbat lidergo-desafio nork bere gain hartzeko, modu arrakastatsuan gaindituz gero, konfiantza hori indartu eta elika dezaten eta erronka berriei aurre egiteko aukerak gehitu ditzaten.
- ✓ Berdintasunik gabeko egoerak eta pertsona bakoitzaren lidergo-gaitasuna aitortzea, horiei ikusgarritasuna emateko, eta horiek zalantzatan jartzeko eta aldatzeko.

## EREMU SOZIALA

- ✓ Zereginera egokituta/sintonizatuta dagoen eta testuinguruarekiko sentikorra den lidergoa onartzea eta praktikatzea.
- ✓ Partaidetza-ikerketaren trebetasunak garatzea: gaiak eta informazio garrantzitsua identifikatzea, datu-bilketa, analisia, emaitzak jakinaraztea, etab.
- ✓ Talde-lan orekatua eta inklusiboa praktikan jartzea, abian jarritako ikerketa-proiektu komunitarioak egikaritzean: talde bat osatzeko, erabakiak hartzeko, proiektuak kudeatzeko, erkidegoaren lotura-lanak egiteko, proiektu pilotuak egiteko, emaitzak aurkeztu eta zabaltzeko eta abar.

## HARREMANEN EREMUA

- ✓ Autokontzientzia eta pertsona bakoitzak gainerakoengan duen eragina ulertzeko behar den ezagutza garatzea, errespetua, ulermena eta tolerantzia azalduz elkarlanean.
- ✓ Autonomiarekin eta hainbat taldetan egokitzeko gaitasunarekin lan egitea, taldearen premien eta lanaren helburuen arabera rol desberdinak hartuz.
- ✓ Lidergoaren erabileran dagoen berdintasun-eza aztertzea, eta kontu horretaz askatasunez hitz egitea, bizi izandako eta ikusitako berdintasun-ezari eta bidegabekeriei izena jarriz.

\* Hezkuntza-etapa guztietarako.

# Oinarrizko edukiak

Helburu horiek lortzen aurrera egiteko, jarraian azaltzen diren oinarrizko edukiak landuko ditugu, hezkuntza-etapa guztietan, eta, espero izatekoa den bezala, adin bakoitzaren ulermen- eta analisi-gaitasunera egokituko dira.



## 4. ARDATZA: SEXUALITATEA ETA TRATU ONA

### IZATEN JAKIN, HARREMANAK IZATEN JAKIN

Pertsona sexudun gisa, berdintasunean eta aniztasunean oinarrituz bizitzea ahalbidetzen digun ikasketa da, eta, aldi berean, errespetuzko eta askatasunezko harreman afektibo eta sexualak izateko gaitasuna ematen diguna, indarkeria matxistetatik urrun.

**Ardatz honen helburua da errespetua eta berdintasunean oinarritutako hazkuntza pertsonala ahalbidetzen duten harreman afektibo, sexual eta elkarbizitza-harremanak adierazi eta sortzeko gaitasun pertsonala ezagutu eta onartzea. Horren bidez, gure seme-alabentzako heziketa afektibo-sexual argi, osasuntsu, berdinzale eta anitza bultzatu nahi da.**

Gaur egun, nazioarteko hainbat erakundek —besteak beste, Osasunaren Mundu Erakundeak eta *Save the Children* erakundeak— eta sexualitateari buruz egindako hainbat azterketa zientifikok azpimarratzen dute zer garrantzitsua den haurtzarotik heziketa afektibo-sexuala lantzea, pertsonen osasunerako, ongizaterako eta garapen pertsonal nahiz sozialerako. Horrez gainera, ikerketa enpirikoen bitartez egiaztatu denez, heziketa afektibo sexuala garaiz lantzen hasiz gero, murriztu egiten dira zenbait jokabide arriskutsu; besteak beste, nahi gabeko haurdunaldiak, sexu-transmisiozko infekzioak eta/edo sexu-indarkeria. Horrekin loturik, literatura zientifikoa ez dago haurtzarotik heziketa afektibo-sexuala ematea gure seme-alabentzat kaltegarria izan daitekeela esaten duen azterketarik; alderantziz, heziketa afektibo-sexuala onuragarria da, beti.

Hain zuzen, 2018an egindako *“Orientaciones técnicas internacionales sobre educación en sexualidad. Un enfoque basado en la evidencia”* dokumentuaren bitartez, Osasunaren Mundu Erakundeak, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO) eta Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsak (UNICEF) **diote heziketa afektibo-sexuala garaiz hasiz gero:**

1. Hainbat onura lortzen direla; adibidez, gazteek ezagutza handiagoa izatea eta sexu- eta ugalketa-osasun hobea izatea.
2. Ez direla areagotzen ez sexu-jarduera ez portaera arriskutsuak; aitzitik, murriztu egiten dira nahi gabeko haurdunaldiak eta sexu-transmisiozko infekzioak.
3. Emaitza hobek lortzen direla heziketa horretan familiak, eskolak eta osasun-erakundeek parte hartzen dutenean.

Tamalgarrria bezain kezkarria bada ere, haurtzaroan eta nerabezaroan ez dugu jasotzen heziketa afektibo-sexual berdinzale, osasuntsu eta askotarikorik. Gazteek nahi duten bezalakoak izatea eta beren nahiak askatasunez bizitzea ahalbidetuko dien heziketa afektibo-sexuala, zentsurarik eta zigorrik gabe, berdintasunez eta askatasunez harremanak izaten lagunduko diena; abusurik, sufrimendurik eta indarkeriarik gabe.

## HITZ EGIN DEZAGUN SEXUALITATEARI BURUZ

**Oraindik ere, heziketa afektibo-sexualaz hitz egiteak zenbait erresistentzia sortzen ditu, ez bakarrik familien eta eskolaren aldetik, baizik baita gizartearen aldetik ere, agian, benetan esan nahi duenari buruz dugun ikuspegi oker eta murriztailearen ondorioz.** Sexualitateari buruz ari garenean, hainbat gauzari buruz ari gara: zer garen, nolakoak garen, zer sentitzen dugun, nola sentitzen garen, nola jartzen garen harremanetan besteekin, nola bizi garen eta nola adierazten dugun.

Hori horrela izanik, sexualitatean hezteko, gure seme-alaben adin eta hezkuntza-etapara egokitu behar dugu, eta ez dugu aritu behar haien interesekoak ez diren alorrei buruz.



Horrez gainera, ez dugu ahanzi behar sexualitatea testuinguruaren arabera aztertu behar dela beti. Gaur egun, sexualitateari buruz dugun ikuspegia

ez da duela zenbait hamarkada zuten berdina, eta, halaber, sexualitateak ez du esanahi bera planetaren leku batzuetan eta besteetan edo kultura batzuetan eta besteetan. Sexualitatearen ezaugarri unibertsala da sexualitatea badela, hor dagoela, eta, beraz, gai horri heldu egin behar zaiola.

Ezin dugu ulertu sexualitatea ikuspegi biologiko edo medikotik bakarrik, alderdi sozialari erreferentziarik egin gabe. Ezinezkoa da hori; izan ere, ikuspegi biologikotik bakarrik aztertuko bagenu, medikuntzaren bidez ebatziko genuke arazo edo zalantza oro, eta ez beste alor batzuetatik (soziologia, psikologia, heziketa... ).

Gainera, ikuspegi mediko edo biologikotik bakarrik hitz egingo bagenu sexualitateari buruz, gai batzuei buruz bakarrik hitz egingo genuke (anatomia, genitalak, ugalketa, sexu-transmisiozko infekzioak...), eta albo batera utziko genituzke sexualitatearen alor pertsonala, harremanen alorra eta alor soziala.

Horregatik guztiagatik, gaur egun, heziketa afektibo-sexualak hainbat gai hartzen ditu bere baitan; besteak beste: afektibitatea, ugalketa, zaintza, sexu-identitatea, desiraren orientazioa, genero-identitatea, gorputza, harremanak eta indarkeriak, besteak beste.

Gizarte sexista batean bizitzeak heziketa afektibo-sexual sexista jasotzea dakar.

Gaur egun, neskek eta mutilek parametro desberdinen bidez eraikitzen dute beren sexualitatea. Mutilen artean, onartuago dago harreman afektibo-sexualei buruz hitz egitea eta horrelako harremanak izatea; nesken artean, berriz, ezkutatu beharreko zerbait da oraindik, "lizuntzat" har ez ditzaten eta, ondorioz, posizio arriskutsu batean egon ez daitezten. Hortaz, mutilak eta sexualitatea positiboki baloratzen dira; neskak eta sexualitatea, aldiz, negatiboki. Abiapuntutik bertatik, desberdintasun ikaragarria dago: mutilengandik sexualki aktiboak izatea espero da; hala ez badira, izen ona galduko dute haien pareko mutilen artean. Neskengandik, berriz, arlo sexuala isilpean gordetzea espero da; "genero-araua" bete ezean, izen ona galduko lukete. Baina, bien kasuan, desioaren orientazioa aurreikusitakoa izatea espero da: heterosexualitatea. Beste sexu-orientazio bat adieraztea ez da naturaltasunez ikusten oraindik, ez eta genero-identitate desberdina izatea ere. Pertsona transexualei buruz ari gara.

## SEXU-HEZKUNTZA GAUR EGUN

Nerabeek sexuari buruz nola hitz egiten duten entzuteak kezka sortzen digu, batetik, oso ezjakinak direlako edo sexualitatea oso modu murriztailean ulertzen dutelako (sexualitatea berdin koitoa) eta, beste alde batetik, haien diskurtso eta praktiketarik ondorioztatzen den sexismoagatik, batzuetan, indarkerian amaitzeraino. Baina kezkarriena da **familiarengandik eta/edo eskolatik sexu-hezkuntzarik ez dutela jaso entzutea. Familiak eta eskolak sexualitatean hezten ez baditu, non ari dira hezten?, nora ari dira jotzen? non argitzen dituzte haien zalantzak?**

Ez da zaila galdera horiei erantzutea: Internet dute inspirazio-iturri, eta pornografia "sexu-sozialiaziorako" eremu.


*Dale la vuelta* webgunearen arabera, hamaika urte ingururekin hasten dira, batez beste, pornografia kontsumitzen. Adin hori aurreratu edo atzeratu egin daiteke, nerabeak Smartphone bat izatearen edo ez izatearen arabera. 13 eta 18 urte arteko mutilen % 81ek dio pornografia ikusi duela, zerbait naturala balitz bezala. Baina gehien ikusten dituzten webgune pornografikoetako batzuk aztertzen baditugu, geure buruari galdetu behar genioke ea utzi behar dugun hipererrealitate sexista koitozentriko, heteronormatibo eta biolento horrek gure seme-alabak hezi ditzan. *Save the Children* erakundearen arabera:

*Pornografiak eta indarkeriaz betetako eduki sexuak, non genero-rolak botere-desberdintasunaren arabera banatzen baitira, eragina izan dezakete harreman pertsonalak ulertzeko moduan.*

Horren aurrean, ia ezinezkoa da Interneti ateak ixtea, baina posible da hori guztia haien bizitzetara iritsi baino lehen arlo afektibo-sexualean hezte. Funtsezkoa da hori.

Bestalde, sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko datuen arabera, azken urteotan, areagotu egin dira sexu-transmisiozko infekzioak, nahi gabeko haurdunaldiak, haurdunaldien borondatezko eteteak eta koito osteko edo biharamuneko pilularen kontsumoa.

Nerabegaroko genero-indarkeriari eta sexu-erasoei dagokienez, datuak ez dira lasaigarriagoak.



**11** SEXU ASKATASUNAREN AURKAKO DELITUAK (Hileko batez-bestekoa)

Azkenik, nazioarteko eta estatuko zenbait azterketaren arabera, LGBTI nerabeentzat, ikastetxea ez da espazio segurua. Haietatik bi herenek diote jazarpen edo erasoren bat jasan izan dutela haien sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik.

Zalantzarik gabe, oso urrun gaude osasuntsua eta berdinzalea den, sexu- eta genero-aniztasuna errespetatzen duen eta indarkeria matxistarik gabeko harreman afektibo eta maitasun-harreman askeak bultzatzen dituen errealitate afektibo-sexual batetik. Diagnostiko horri buelta emateko, familiek eta eskolek haurtzarotik ekin behar diete neska-mutilak arlo afektibo-sexualean hezteari.

\*Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren arabera.

\*\*Nafarroako Foruzaintzaren datuak.



## KOEDUKAZIO AFEKTIBO-SEXUAL BATERANTZ

Aipaturiko datuei aurre egin ahal izateko, koedukazio afektibo-sexualaren bidea egin behar dute familiek eta eskolek. Pertsona ororentzat, funtsezkoa da bere burua maitatzen, besteak maitatzen eta maitatua izaten ikastea, modu osasuntsu eta askean; eta haurtzaroan hasten da bide hori. Modu osasuntsu, berdinzale eta anitzean geure burua maitatzen eta besteak maitatzen ikasteak ezaugarri horiek ez dituzten eta ondoeza eta indarkeria eragiten duten beste modu batzuetatik babesten gaitu.

Koedukazio afektibo-sexualaren gaiari heltzean, lehenik eta behin, geure begirada aldatu behar dugu, eta, bigarrenik, geure praktika:

### **1** Sexualitatea geure bizitzako funtsezko dimentsio bat bezala ulertu.

Pertsona gisa geure burua eraikitzeko, geure alderdi sexuala hartu behar dugu kontuan, nahitaez. Izaki sexudunak izanik, sexualitatea geure bizitzaren osagaietako bat da. Sexu-heziketa egokiaren bidez, ongizate fisikoa, psikologikoa eta soziokulturala hobetzen da. Beraz, sexualitatea bizitzeko, norbere burua ikusteko eta pertsona sexudun gisa sentitzeko modua da; instintuarekin zerikusirik ez duena, baizik eta dimentsio sozial batekin. Neska eta mutil bakoitzak modu indibidualean bizitzen du bere sexualitatea, bizitzako etaparen arabera..

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, **sexualitatea gizakiaren funtsezko alderdi bat da, bizitza osoan presente dagoena. Sexualitatearen barruan daude sexua, genero-identitateak eta -rolak, erotismoa, gozamena, intimitatea, ugalketa eta sexu-orientazioa. Sexualitatea pentsamendu, fantasia, desira, ideia, jarrera, balio, jokabide, praktika, rol eta pertsonen arteko harremanen bidez bizitzen eta adierazten da”.**

### **Nola eramaten da aurrera?**

- ✓ Norbere gorputzaren eta hazkundearen gaineko kontzientzia hartzen lagunduz, desberdintasunak ikusten lagunduz eta ongizaterako eta gorputza zaintzeko ohiturak sustatuz, beti ere, adin bakoitzeko ulermen-mailara eta beharretara egokituta.
- ✓ Bultzatuz bakoitzak bere gorputza ikusi eta bizi dezan sentsazioak bizitzeko, harremanetarako, komunikaziorako eta gozamenerako iturri gisa.

## 2 Afektuak sexualitatearen zeharkako ardatz gisa txertatu.

Hezkuntza afektiboak presente egon behar du eguneroko hezkuntza-praktikan, sentitu egiten baitugu eta emozioak baititugu, jan edo arnasa hartzen dugun moduan. Emozio eta sentimenduek leku pribilegiatua dute pertsonen artean sortzen diren harremanetan. Sentimenduak emakume zein gizonek

izan arren, generoaren aldetik dagoen desberdintasunetako bat da neskek eta mutilek ez dutela heziketa bera jasotzen, eta, sexuaren arabera, sentimendu batzuk adierazten eta beste batzuk gordetzen ikasten dutela.

Garrantzitsua da neska-mutilek hausnartzea gure bizitza afektiboa ez dela murrizten maitasunezko edo bikoteko harremanetara, eta ohartzea lotura duela geure buruarekin eta bikotetik kanpo dauden beste pertsona batzuekin ditugun harremanekin ere.

## 3 Sexu-aniztasuna, genero-aniztasuna eta familia-aniztasuna landu.

Aniztasun afektibo-sexualak askotariko sexualitateei buruz hitz egitea dakar, eta hainbat elementuk zeharkatzen dute horietako bakoitza: sexu biologikoa, genero-identitatea eta -adierazpena eta desiraren orientazioa.

\* **Sexu-identitateak** pertsona bakoitzak sexu jakin batekoa izateko duen autopertzepzioari egiten dio erreferentzia. Autopertzepzio hori ez dator beti bat

pertsonaren ezaugarri biologikoekin, hau da, neska sentitu eta zakila izan dezake, edo mutil sentitu, eta bulba izan.

\* **Sexu-orientazio** terminoak pertsona batek beste batzuekiko sentitzen duen desira erotiko, sexual eta/edo afektiboaren orientazioari egiten dio erreferentzia. Sexu-orientazioak askotarikoak dira, eta heterosexualitatea ez da erreferentziazko orientazio-eredua.

\* **Genero-identitateak** gizon eta emakume kategorien arabera definitutako giza talde bateko kide izateko sentimenduari egiten dio erreferentzia. Giza talde horietako

## 4 Gorputza edertasun-kanonetatik aske dagoen espazio aske gisa ulertu.

Edertasun-kanonak aldatu egiten dira kulturaren eta une historikoaren arabera. Hala eta guztiz ere, gizarte orotan, edertasun-eredu bat ezartzen da -batez ere, emakumeentzat-, indarkeria mota bat bihurtzen diren jarraibide estetiko batzuen inposizioan oinarrituta. Gaur egun, edertasunaren eta estetikaren

sozialazioa protagonismo handia hartzen ari da. Komunikabideek eragin ikaragarria dute, eta bereziki kezkarriak dira neskak haurtzarotik hipersexualizatzeko fenomenoak.

Mendebaldeko munduaren kanon batzuk (argal egotea, betirako gaztetasuna, etab.) ondorio larriak izaten ari dira (buru-gaixotasunak, elikadura-nahasmenduak, autoestimua baxua...), edertasun-eredu irreal eta idealizatu bat betetzeko ezintasunak sortzen duen etengabeko nahigabearen eraginez.

Sentimendu guztien aberastasuna eta balioa aitortzen ikasi behar dute, mugarik gabe, sentimenduak nahi duten bezala eta sexuaren arabera baldintzatu gabe adieraziz. Negar egin, lur jota sentitu, samurtasuna adierazi, ausart agertu, laguntza eskatu..., ezin konta ahala egoera emozional adierazteko bideak dira, eta ez dute izan behar gizon edo emakumeen ondare eskusibo.

### Nola eramaten da aurrera?

- ✓ Sentimendu eta emozioen adierazpena landuz, genero-estereotiporik gabeko sentimendu eta emozio unibertsal gisa.
- ✓ Afektibitatea harremanak izateko eredu nagusi gisa sustatuz.

batekin identifikatuz gero, bitarra izango da, biekkin identifikatuz gero, ez-bitarra, eta giza talde batekin ere identifikatzen ez bada, ageneroa.

\* **Genero-adierazpen** esaten zaio pertsona batek gizartearen aurrean bere sexu- eta/edo genero-nortasuna kanporatzeko duen moduari, estetikaren, portaeren, jarreraren eta adierazpenen bitartez. Adierazpen horiek izaera sozial eta kultural oso markatua dute, eta garai eta inguruneen arabera izaten dira.

### Nola eramaten da aurrera?

- ✓ Neska-mutilei beren burua sentitzen duten moduan aitortzen eta beren sexu-identitatea, genero-identitatea eta desiraren orientazioa positiboki onartzen lagunduz.
- ✓ Emakume eta gizon gisa adierazteko modu desberdinak ulertzen lagunduz, arketipo sexistetatik urrun.
- ✓ Familia eredu bat bakarrik ez dagoela eta gure ikastetxeetan eta gizartean gero eta familia-aniztasun handiagoa dagoela erakutsiz.

Hori dela eta, **gorputza askatasun-espazio gisa ulertzen badute, estereotipoetatik eta edertasunaren inposizioetatik bereizia, areagotu egiten dira gure seme-alaben autoestimua, autoezagutza eta gainerakoan aurrean beren buruak erakusteko eta beren buruak maitatzeko modua, eta, aldi berean, era horretako trakzio-eredu sexisten erasoetatik –presentzialak nahiz birtualak– babestea lortzen da.**

### Nola eramaten da aurrera?

- ✓ Ahalduntze eta segurtasun pertsonala sustatuz, norbere gorputza positiboki aitortzetik eta errespetatzetik abiatuta.
- ✓ Gure gizartean dauden edertasun-ereduei eta norbere gorputzaren pertzepzioan duten eraginari buruzko azterketa kritikoak egiteko tresnak eta gaitasunak eskainiz.

## 5 Sexualitatea modu positiboan bizi, baina erantzukizunez.

Heziketa afektibo-sexualak, osasun eta garapen pertsonal eta afektiborako heziketa izanik, pertsona gisa haztea eta sexualitatearekiko jarrera positibo eta arduratsua izatea du helburu. Hala, erantzukizunez jokatzeari bultzatzen du, ez soilik norberak bere buruarekin, baizik baita beste pertsonekin ere, bakoitzaren testuinguru sozialaren barruan.

Gaur egun, nerabeek gero eta informazio-kanal gehiago dituzte sexualitateari buruz (liburuak, lagunak, Internet... ). Hala eta guztiz ere, informazio-iturri horiek kontraesankorrak izan daitezke edo haien adinari ez dagozkionak izan daitezke. Osasuntsuak ez diren harreman afektibo-sexualak izateko arriskuari buruz egoki trebatuz gero, neska-mutilek praktika arduratsuek eramanango dituzte aurrera. Kontua ez da arreta osoa arriskuarekin jartzeari, baina arrisku horiek izan ditzaketan ondorioei buruzko informazioa eman behar zaie: nahi gabeko haurdunaldiak,

## 6 Harremanak eta maitasunak eraiki, errespetuan eta aniztasunean oinarrituta.

Maitasuna ez da txertatua dagoen gizarteko gertaera isolatu bat. Hori dela eta, testuinguruaren arabera aztertu behar da, dagokion garaia eta kultura kontuan izanda. Maitasunezko harremanak ulertzeko eta eraikitzeko moduak aldatu egin dira gure gizartean. Ez dira gauza bera XVIII. mendeko maitasun-harremanak, 50eko hamarkadakoak edo gaur egungoak.

**Gaur egun, maitasun erromantikoa da maitasun-eredu nagusia.**

**Maitasun erromantikoaren eredu heterosexualitatean eta rolen banaketa desorekatuan oinarritzen da. Hala,**

**emakumeak mendeko posizioan kokatzen ditu eredu horrek.**

Maitasun erromantikoaren inguruan, maitasun erromantikoaren mitoak deitzen zaien sinesmen batzuk eraiki dira. Sinesmen horiek guztiak pertsona eta talde gisa izan dugu garapenean ikasi ditugu, eta gure familiek eta komunikabideek mila bider indartu eta justifikatu dituzte. Halaber, besteen jarrerak behatuz barneratu ditugun portaerak eta balioak dira, eta oso zaila da horien aurka borrokatzea, portaera eta balio eztaba daezin gisa barneratzen baititugu eta, gainera, gizarteak, komunikabideek, eskolak eta familiak are gehiago indartzen baitituzte.

Jelosia pixka bat agertzea maitasunaren adierazle dela sinestea (benetan atzean dagoena segurtasun eza eta jabetza

Eskema horretatik abiatuta, sexualitatea lantzean, arriskuaren sozializaziotik urrundu, eta gozamenaren pedagogian murgilduko gara. Gozamenaren ikuspegi hori hartzeak ez du esan nahi sexu-praktikei buruz hitz egitea helduok praktika horiek ulertzen ditugun moduan, baizik eta afektuei, gorputzei, desirei, mugei, autoestimuari, aniztasunari... buruz hitz egitea.

**Heziketa afektibo-sexualaren bitartez, beren erabakiak hartzeko gai izango diren eta sexualitatea gozamenez eta inposiziorik, beldurrik eta indarkeriarik gabe bizitzeko gai izango diren pertsona autonomoak eta arduratsuek bihurtuko dira gure seme-alabak.**

haurdunaldien borondatezko eteteak, sexu-transmisiozko infekzioak, nahi gabeko harremanak, indarkeriak...

### Nola eramaten da aurrera?

- ✓ Sexualitatearen ugalketa-dimentsioari buruzko informazioa emanez; haziz doazen neurrian, hori kudeatzeko tresnak eta gaitasunak erakutsiz; eta norbere erabakien gaineko eta guraso izateko erabakiaren gaineko erantzukizuna izaten erakutsiz.
- ✓ Sexu-praktikei buruzko informazio egokia emanez, informazio-falta horrek eragin ditzakeen arriskuak saihesteko.


denean), laranja erdia existitzen dela pentsatzea (eta pertsonak ez garela osoak bikotea izan arte), maitasunak guztiari egin diezaiokeela aurre (eta gure maitasunarekin, gauzak aldatu egingo direla, bikotea aldatu egingo dela) edo maitatzea sufritzea dela ("kexarazten hau, maite hau" eta gisako ideiak)..., maitasunaren mito horien atzean gordetzen den perbertsioaren erakusle dira, eta horietatik, ezin dira eraiki harreman desorekatuak besterik.

**Nerabezaroan, bereziki garrantzitsua da mito erromantiko horiei aurre egitea, baldin eta konfiantzan, errespetuan, askatasunean, komunikazioan, berdintasunean eta aniztasunean oinarritutako harremanak eraikitzea nahi badugu, orduan hasten baitira lehenengo esperientziak.**

### Nola eramaten da aurrera?

- ✓ Berdinen arteko harremanak bultzatuz, errespetua eta hazkuntza pertsonala oinarri hartuta, estereotipoetatik eta bestelako baldintzatzaileetatik urrun.
- ✓ Adinaren arabera, harremanen barruko tratu txarrak identifikatzeko tresnak eta gaitasunak emanez, adin guztietan abusuzko harremanen aurrean mugak jartzeko, maitasunezko harremanetan mugak jartzen jakiteko eta eraso sexista edo sexu-eraso baten aurrean erantzun egokia emateko gai izateko.
- ✓ Norbere ideiak, sentimenduak, afektuak eta desirak adierazteko gaitasunak garatzen eta beste pertsonetikiko ulermena, errespetua eta onarpena edo bazterketa lantzeko gaitasunak garatzen lagunduz, bakoitzak arduraz erabaki dezan bere bizipen afektibo-sexual positibo eta osasuntsuei buruz.

Beren gorputzari buruzko erabakiak beren desioen arabera hartzea ahalbidetuko dien heziketa afektibo-sexuala; nahi dutenean, beste pertsona batzuekin harremanak izatea ahalbidetuko diona, berdintasunean, errespetuan eta aniztasunean oinarrituta. Hori guztia lortzeko, eskolak eta familiak, sozializazio-agente nagusiak izanik, eskutik joan behar dugu neska-mutilen heziketa afektibo-sexualean. .



# Helburuak \*

## ESPARRU PERTSONALA

- ✓ Gorputza ezagutzea eta haren hazkuntzaren kontzientzia hartzea, desberdintasunak aitortuz, gorputz-ongizatearen ohiturak garatuz eta gorputza sentsazio-, erlazio-, komunikazio-, gogobetetasun- eta plazer-iturri dela onartuz.
- ✓ Nork bere burua neska edo mutil gisa aitortzea, bere sexu-nortasuna modu positiboan onartuz, genero-elementu diskriminatzaile gabe eta, gustuei dagokienez, geure burua emakume eta gizonezko gisa adierazteko modu desberdinak ulertzen lagunduz, batzuetan zaletasun, lehentasun eta nolakotasun berdinak eta beste batzuetan desberdinak izaten ahal baititugu, baina gure nortasuna galdu gabe.
- ✓ Sexualitatearen ugalketa-alderdia ezagutzea, hura kudeatzeko tresnak eta trebetasunak jarriz eta ama edo aita izateko erabaki arduratsua ahalbidetuz.

## EREMU SOZIALA

- ✓ Berdintasunean, errespetuan eta erantzukizunean oinarritutako funtsezko bizikidetza-irizpideak ezagutzea eta erabiltzea.
- ✓ Tresnak eta trebetasunak ematea honako hauei buruz azterketa kritikoak egiteko: edertasun-ereduak, ingurune hurbileko pertsonen artean ezartzen diren harremanak, sexua merkaturatzea eta sexu-indarkeria.
- ✓ Identitate maskulino eta femeninoen aniztasun handia, familiako bizikidetza-eredu desberdinak, eta amatasunarekin eta aitatasunarekin zerikusia duten prozesuetako aniztasun handia aitortzea.

## HARREMANEN EREMUA

- ✓ Inguruneko pertsona esanguratsuekin lotura afektiboak ezartzea, konfiantza, segurtasuna eta sentimendu zein ideiak adieraztea ezaugarritzat dituztenak.
- ✓ Errespetuan eta hazkunde pertsonalean oinarritutako bikoteen arteko harremanak ahalbidetzea eta indartzea.
- ✓ Tresnak eta trebetasunak ematea gure harremanetan tratu txarrak identifikatzeko, gure harremanetan abusuzko portaerei mugak jartzeko eta eraso sexista edo sexual bat dela-eta erantzun egokia emateko.
- ✓ Norberaren ideiak, sentimenduak, afektuak eta desirak adierazten laguntzen duten gaitasunak garatzea; gainerako pertsonak ulertzea, errespetatzea, onartzea eta arbuiatzea; bizipen afektibo-sexual positiboak, arduratsuak eta osasuntsuak izatea.

\* Hezkuntza-etapa guztietarako.

# Oinarrizko edukiak

Helburu horiek lortzeko, oinarrizko eduki hauek landuko ditugu (edukiak berdinak dira hezkuntza-etapa guztietan, baina, logikoa denez, egokitu egiten dira adin bakoitzeko ulermen- eta azterketa-gaitasunaren arabera).





**SKOLAE**



**SKOLAE Programak** aitorpena jaso du esparru desberdinetan, Estatuko hezkuntza alorretik kanpo ere. Orain arte bakarrik bi ikasturteko ibilera izan du Nafarroan. Horietan 1.808 emakumek eta 495 gizonek, hitzartutako eta ikastetxe publikotako irakasleek formakuntza jaso dute programa ezartzeko. Haiek egindako jardueren balorazioa 4tik 3,4koa izan da (gelara eramandako jardueretaz) eta 10etik 8koa (parte hartu duten irakasleen gogobetetze mailaz.)

17.617 ume/gaztek (3-18 adinekoek) landu dituzte jarduerak (8.705 neskek eta 8.902 mutilek, %49,5 / %50,5).

114 ikastetxek (guztien %37) badute hurrengo urteotan garatzeko Hezkidetzaren Identitate Plana, pertsona bat esleituta Hezkidetzaren koordinatzaile lana egiteko eta talde bultzatzaile txiki bat, neurriak aurrera eramateko.

**Hezkuntza komunitatearekin batera bide bati ekin diogu, bidezko eta hobe den gizarte bat eraikitzeke zeinean Nafarroako ikastetxeetako familiek, irakasleek eta ikasleek geure etorkizuna eta orainaldia berdintasunean eraiki ahal dezagun.**

